



SAGASTIBERRI

Urruzunotarrak  
gehituz

2015



irakaskuntza ertainetako

# Urruzunotarrak gehituz

literatura-ekimena 2015

LAN SARITUEN BILDUMA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2015eko abuztua

Ale-kopurua: 1.725

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Prestatzaileak Iñaki Iturain, Iñigo Barruso  
eta Veronica Muñoz

Azala: Txapo Creativos S.L.

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa eta inprimategia: R.G.M., S.A.  
Polígono Igeltzera Pab. A1 bis - 48610 Urduliz-Bizkaia

ISBN: 978-84-457-3372-1

Lege-gordailua: BI 1079-2015

## AURKIBIDEA

<b>Hitzaurrea</b> .....	7
-------------------------	---

<b>Fikzio Basatia</b> <i>Katixa Agirre</i> .....	11
--	----

### Prosa: A maila

Beragatik .....	<i>Peru Amorrortu Barrenetxea</i> . .	21
Benetako maitasuna .....	<i>Uxue Millet Oyarzabal</i> .....	31
Ezezagunak .....	<i>Ane Iturriarte Basterretxea</i> . . .	43
Bera .....	<i>Irati Ricon Santoyo</i> .....	59
Gaberako aterpea .....	<i>Jon Larrabide Fuldain</i> .....	69
Urak eta haizeak dakartzaten gutunak	<i>Araitz Peña Mallona</i> .....	77

### Prosa: B maila

Doinu bat iluntasunean .....	<i>Irantzu Zubeldia Olasagasti</i> . .	87
Azken hatsa .....	<i>Ainhoa Gojenola Urrutia</i> .....	97
Ordua da .....	<i>Karmele Garatea Zaballa</i> . . . .	105
2019ko otsailaren 23a .....	<i>Irati Uribesalgo Muñoz</i> .....	111
36 KM .....	<i>Nagore Cuevas Trujillo</i> .....	119

**Poesia: A maila**

Orro eta Ulu . . . . .	<i>Iñigo Perez Mujica . . . . .</i>	129
Hegan . . . . .	<i>Lurdes Ondaro Mallea . . . . .</i>	135
Requiescat in pace . . . . .	<i>Irati Ricon Santoyo . . . . .</i>	141
Zikloa . . . . .	<i>Imanol Duran Gabilondo . . . . .</i>	149
Buruhauste onuragarriak . . . . .	<i>Alain Mendizabal Diaz . . . . .</i>	155

**Poesia: B maila**

Maite nau . . . . .	<i>Olatz Martiartu Ayestaran . . . . .</i>	165
Gaubelarena . . . . .	<i>Oihane Lopez Lasa . . . . .</i>	173
Oroitzapenak . . . . .	<i>Maddi Puy Sorondo . . . . .</i>	179
Bizitzaren jokoa . . . . .	<i>Alaitz Estonba Loinaz . . . . .</i>	185
Zergatik? . . . . .	<i>Oihan Astigarraga Arruabarrena . . . . .</i>	191

<b>Urruzunotarrak 1986-2015 . . . . .</b>		<b>197</b>
---	--	------------

## HITZAURREA

Hogeita bederatzi urte bete ditu aurten Urruzuno literatura-lehiaketak, azken urteotan “Urruzunotarrak gehituz” izenpean egin behar izan badu ere.

Liburu honen azken orrietan duzu, irakurle, urte haue-  
tan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrenda. Bost-  
ehunetik gora dira dagoeneko “titulu” hori lortu dutenak.  
Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu egin dute irabazle  
izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetako lehiaketak  
urteotan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen ari  
zaizkigu Urruzunotarrak gaurko kazetaritzako eta litera-  
turako izenen artean. Kimu loratuak dira haiek, irakurle;  
kimu berriak, liburuan barrena dastatuko dituzunak.

Urtero bezala, berariaz goraiatu nahi dugu idazle  
gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-treba-  
tzailea. Irakasle fin horren lan isila dago gaztetxo hauetako  
bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan  
nahikoa izaten idazle berriak sortzeko. Landu, trebatu eta  
aberastu egin behar izaten da berezko hori.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Beharbada ez duzu asmatu barruan duzun hori oraingoan kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko. Topikoa litzateke orain esatea “saiatu berriro”, eta topiko erdiarekin nahikoa da: “saiatu” besterik ez.

Gatozen orain aurtengo lehiaketaren datuak ematera. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Literaturaz jantziak diren pertsona hauen lankidetzatza izan dugu edizio honetako epaimahaian:

Castillo Suarez  
Urtzi Urrutikoetxea  
Leire Bilbao  
Miren Agur Meabe  
Katixa Agirre

Parte hartzeari dagokionez, 2015ean 118 lan jaso ditugu: A mailan 51. Prosan 39 eta poesian 12. B mailan, berriz, 67. Prosan 51 eta poesian 16. Parte hartzaileetako 88 neskak izan dira, eta 30, berriz, mutilak.

Ekimenak 20 bikaintasun-aipamen ditu, 20 sari, lau ataletan banatuta: prosa eta poesia arloetan eta, adinaren arabera, A eta B mailetan. Bosna, atal bakoitzean. Aurten idazle baten bi lan saritu direnez, atal batean seigarren ikasle batek ere jaso du saria, harekin hogeitasei sariduneko taldea osatzeko.

Aipamendunek irailean bost eguneko literatura-egonaldia egingo dute aterpe batean. Egonaldian zenbait literatura tailer izango dituzte, idazle batzuek bideratuta.

*Sagastiberri* sailean epaimahaiak emandako lehen-tasun-ordenan argitaratzen dira lanak eta liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2015a bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen arabera alfabeto-ordenean. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu aipamendunoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Katixa Agirreri.

Liburuko idazleak poztuko dira, irakurle zaren horrek lan hauek maitekiri eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburu hau irakurtzeko eta idazteko zaletasuna zure ikasleen artean zabaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere, irakur ezazu liburu hau gazte batzuen ilusioaren eta sormenaren ispilutzat hartuz. Euskaltzale, irakur ezazu itxaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU, deiadarka datorkizu liburu hau.

**Euskara Zerbitzua**



# **FIKZIO BASATIA**

Katixa Agirre



2015eko martxoaren 24an Bartzelonatik Düsseldorfera zihohan Airbus A320 bat radar guztietatik desagertu zen aurretik inongo alarma mezurik bidali gabe. Handik ordu gutxitara espero zena konfirmatuta geratu zen: hegazkina Alpeen kontra jo, puskatu eta leherketak ez zuen inor bizirik utzi. 150 bizitza, goizean jaiki eta Bartzelonatik Düsseldorfera atzerapen handirik gabe heldu nahi zuten 150 bidaiari –haur txikiak, amonak eta aitonak, jende zoriontsu edo akaso zorigaiztokoa, opera abeslariak, exekutiboak, erretiratuak, hagineta mina zutenak, familia bisitatzerantz zihoztenak– guzti-guztiak, minutu batetik bestera betiko desagertuak.

Baina ikaragarriena –bai, oraindik ikaragarriagoa zen zerbait entzun behar genuen!– 24 orduren buruan hasi zen argitara ateratzen. 2015eko martxoaren 24an, Bartzelonatik Düsseldorfera zihohan abioiko kopilotuak, zeinen izena ez dudan gogoratu nahi, pilotuak kabina utzi arte itxaron, atea azpikeriaz itxi eta 149 pertsonen bizitza bere eskuetan zuela jakitun, hegazkina Alpeen kontra eraman zuen. Nahita, metodikoki, ez bereziki azkar edo modu zakarrean,

arnasa behintzat lasai mantendu zuen, kutxa beltzen grabazioen arabera beti ere.

Horraino, froga guztiek diotena.

Hortik aurrera, hutsunea.

Hortik aurrera, fikzioa.

Ez alferrik, gertatutakoa entzundakoan, jende askok gogora ekarri zuen iazko film ospetsuenetako bat, Relatos Salvajes argentinarra. Film luze horren lehenengo atalean, pilotu erresumindu batek, aitzakia faltsuen bitartez –ustez– bizitza hondoratu dioten pertsona guztiak biltzen ditu hegazkin batean eta, odol hotzez, gurasoen etxearen kontra botatzen du abioia segituan. Bai, gurasoak ere pilotuaren bizitza hondoratzeaz arduradun, jakina.

Pelikulan, pilotuaren ekintza basatia eta ikaragarria da, dudarik gabe, baina umorez kontatuta dago, umore beltzaren xarmaz. Nork ez du horrelakorik inoiz desiratu, adarrak jarri zizkizun mutil-lagun hori, ikaskideen aurrean irrigarri utzi zintuen irakasle hura... miserable horiek guztiak harrapatu eta merezi duten mendekua aurrera eramana. Plater hotza, justizia poetikoa eta abar eta abar. Pelikulako pilotuak muturrera eramaten du modu batean edo bestean denok noiz edo noiz pentsatu dugun zorakeria, eta hor dago umorearen koska, hiperbolean.

Baina ez da bakarrik umore kontua, ez. Pilotu erresuminduaren istorioak, filmaren baitan gag hutsa dena, zentzu guztia dauka. Ulertzen ditugu pilotuaren ekintzaren atzean egon daitezkeen arrazoiak, argi sentitzen dugu biktimen damua pilotua gaizki tratatu zutela –beranduegi–

ohartzen direnean, eta harrapatzen dugu pelikula osoaren gaia izango dena, bere esanahia, hitz batean: batzuetan beste masaila jartzeaz nekatu egiten gara, bizitzan beti heltzen da momentu bat injustizien aurrean biolentziaz erantzuteko.

Istoriotxo bat. Bere hasiera, garapen eta amaierarekin. Ondo eraikitako pertsonaiekin. Sinesgarria. Bere baitan, literaltasun hutsa eta zentzu metaforikoa gordetzen duena. Testua eta azpittestua. Partikularretik orokorrera zabaltzeko ahalmena duena.

Istoriotxo bat, finean. Fikzioa.

Itzul gaitezen, bi minutuz bada ere, izenez gogoratu nahi ez dudan errealitateko beste kopilotu horregana.

Pentsatu nahi dugu Alpeetako masakrea ere gag bat dela, artefakto narratibo txukuna. Horregatik esaten dugu pelikula argentinarraren hori gogora ekartzen duela.

Eta fikzioaren baliabideak aplikatu nahi izan dizkiogu Alpeetako tragediari. Arrazoiak, motibazioa, hasiera, garaipena eta amaiera.

Pentsak gustura jorratu du kopilotu hiltzailearen bizitza pertsonala: haurdun omen dauden neska-lagunak, azafata maitale sekretuak, erreprimutako homosexualitatea, depresio sakonak, ikusmen arazoak, obsesioak, nartzisismoa, running zaletasuna. Pentsa sentsazionalistak handik eta hemendik lortutako bizitza txatalak, ezer azaltzeko balio ez dutenak, gertatutakoari inongo zentzurik ematen ez diotenak, ez bada imajinazio ariketa intentsibo baten bitartez.

Edo bestela konspirazioaren teoriak daude. Guztia NATOren esperimentu baten ondorioa izan da, laser berri bat ari dira probatzen, hanka sartu dute, kopilotuari bota diote errua. Edo aseguru-etxeen jukutria izan da. Edo masoiek mezu bat bidali nahi digute deabruak hartutako kopilotuaren bitartez.

Fikzio hutsa beste behin ere, bere botere iradokitzaile guztiarekin.

Baina, lagunok, errealitateari aurre eman behar zaio.

Eta hauxe da kontua. Alpeetako masakreari ezingo diogu inoiz zentzua topatu. Berdin da zenbat psikiatren aipua biltzen dituen egunkari horrek, zenbat “froga misteriotsu” erakusten dizkigun konspirazioaren teorietan espezializatutako blogak. Gertatu zenaren esanahia ez dugu inoiz ezagutuko, Alpeetako maldetan geratuko da betiko lurperatuta. Edo akaso izango da esanahirik ez dagoela batere. Gertatu zen, ez dugu ulertzen, ezin dugu ezer egin gertatutakoarekin. Absurdoaren tontor bat izango da, beste tontor bat giza-absurdoaren Himalaya infinituan.

Eta orduan zer?

Orduan fikzioa dugu. Eta akaso lerro hauek irakurtzen ari bazara, zeu ere konturatzen hasia zara, liburu honetan biltzen diren egile gazte hauen gisara, bizitzak zentzua duela soilik fikzioaren galbahetik pasatzen dugunean.

Maite ditugu istorioak. Istorioak kontatzen dizkiogu elkarri etengabe. Eta hala izan da tximinoak izateari utzi genionetik. Iluntasun kosmikoaren erdian bakarrik geundela konturatzen hasi ginenetik. Istorioen bitartez, argi izpi

bat piztuko genuelakoan. Mitoak, kondairak, istorio sakratuak, genesiak eta apokalipsiak, lo egiteko kantak, printzesen ipuinak, koplak, txutxu-mutxuak, poema epikoak, hilkantuak, txisteak, aitzakiak, James Bonden pelikulak, eleberriak, manifestu komunistak, bideoklipak, gabon kantak, detektibeen telesailak.

Badakigulako hortik aurrera, hutsunea dagoela. Hortik aurrera, iluntasuna.

Eta guri ez zaizkigu hutsuneak gustatzen.



# **PROSA. A maila**

Batxilergoak  
Erdi Mailako Heziketa Zikloak



# **Beragatik**

Peru Amorrortu Barrenetxea  
Armentia Ikastola  
Gasteiz



Ukabilak estututa, begiak suminezko negar malkoz beteta, zeure buruari eusten saiatzen zara.

Baina ezer gutxi egin dezakezu barrutik kiskaltzen zaituen su horren kontra. Sumendi batetik sortutako laba gorria bezala, zeure gorputzean barna zabaltzen da, gihar bakoitza, gorputz atal bakoitza kiskaliz eta errez. Zure barneko sumendi horrekin batera, zu ere lehertuko zarela sentitzen duzu.

Berak hitz egin dizu. Hitzak bere ahotik ateratzen nabaritu dituzu, baina ez diozu ezer ulertu, berak esan dezakeen edozerk ez du jada zentzurik zuretzat, bost axola zaizkizu beraren erranak. Zer diozun jakin gabe, erantzuten hasi zara, eta ahotsa borborka ateratzen zaizu.

Oihuka ari zarela konturatu zara, altuegi oihuka ari ere, ahotsa urratzeraino, zeure belarriak gortzeraino. Ez zara kontziente esandakoaz, zure mingainak esan dituen astakeriez, baina zuri axola ez. Momentu honetan desio duzun bakarra gela horretatik irtetea da, bere aurpegia ez ikus-

teko, besotik irmo heltzen dizun atzaparra ez sentitzeko, lasaitzeko errepikatzen dizun ahotsa ez entzuteko.

Astindu batez askatu duzu besoa. Airean amorrua eta etsipena arnas daitekeen gela madarikatu hartatik irten beharra duzu. Buelta emanez, atea itxi duzu danbateko batez. Korridorea gurutzatzen ari zarela, danbadaren oihartzunak harrapatu zaitu. Zure gelara heltzean, hormek dardara dagite oraindik, eta zure barneko sumendi horrek eragiten dizun korromioa geldiezina da dagoeneko. Berriro itxi duzu atea, zurea oraingoan, askoz bortitzago oraingoan paretak alderik alde gurutzatzen dituen dardara bikoiztuz, lurrikara baten pareko bihurtzeraino. Ekintza horrekin desagerrarazi duzu zure adimenak oraindik gordetzen zuen azken arrazoimen zantzia.

Zeure inkontziente basatienarekin bat egin bazenu bezala, edozer suntsitu, txiki-txiki egiteko grina kontrolaezina jabetzen da zutaz. Lurrean botata utzi dituzun gauzak ostikatzen hasten zara, ahal duzun indar handienarekin, kolpe batez gauzak mundutik desagerrarazi nahiko bazenitu moduan, eta haiekin batera, zure barneko amorrazio eta haserre guztia. Hor doa airean zure zorroa, zakarrontzia, lurrean zegoen liburua. Baina hori guztia nahikoa ez zure barneko haserre suntsitzailea baretzeko, zeure erraietako piztia otzantzeko. Eta lehen baino bortizkeria handiagoarekin, beso kolpe batez mahaiko gauza guztiak lurrera bota dituzu: erlojua, iratzargailua, lurrean zehar zabalik barreiatu diren liburuak, mila puskatan hautsi diren mahailanpara eta berak noizbait oparitutako loreontzia, tximeleta eder baino ederrekikoa.

Geldiezirik, hormari ukabilkada bat eman diozu. Ez duzu ezer sentitu, zure gorputzak etengabe jariatzen duen

adrenalinak ez dizu uzten. Eskuak sorgor. Aurreko ukabilkadari, beste batek jarraitzen dio, eta honi hirugarren batek. Pareta behera bota nahi bazenu bezala, ukabilkadari ukabilkada ari zara, amaigabea iruditzen zaizun denbora batez.

Orduan, supituki, neke ezin handiagoa besoetan. Abaildura gorputzean, hankak dardarka ari zaizkizu. Orduan, zeure buruak egoeraren kontzientzia berreskuratzen du, hein batean bakarrik baldin bada ere. Akituta, ohean eseri zara. Zure hatz koskorretatik, odol tanta bat irristatu da lurrera, alfonbran orban iluna eginez. Hatz zaurituak miazkatu dituzu, jada sentitzen hasia zaren mina arintzeko. Odolaren gustu metalikoak porrot eta samin zaporea hartzen du zure ahoan.

Orduan, bat-batean, ikusmena lausotzen zaizu, eta begiak negar anpuluz bete zaizkizula konturatzen zara. Erraietatik datorkizun sentimendu bati erantzunez, negarrez hasten zara. Malkoak zure masailetan behera, erre-kasto gaziak. Aurpegia eskuen artean ezkutatu duzu, erreallitate gordinarengandik ihes egin nahian. Leher eginda, ohean etzan zara, ez bereziki nekatuta zaudelako, ez dakizulako zer egin baizik. Eta, horra zu, hala desiratu gabe, oroitzapenen putzu ilunean murgildua.

Oraindik gogoratzen duzu nola ikusi zenuten lehenengo aldiz elkar. Baina “elkar ikusi” ez da esamolderik egokiena. Zuk bera ongi ikusi bazenuen ere, bera ez zen ohartu zu han egon izanaz. Dantzan zebilen jendetzarenartetik berari josi zenizkion begiak, bere aldaken mugimendu suharrei. Bere izerdia dastatu nahi izan zenuen, bere lurrina zurekin betiko izan.

Ondo gogoan duzu bere imintzio bakoitza, bere dantza pauso bakoitza, artean nerabe hutsak besterik ez zinetela, zure maitasunaren eskaintza neska horri egitea erabaki zenuen egun hartan. Geroztik, ezin izan zenuen burutik kendu. Gauean, bera zen zure ametsetako nonahiko pertsonaia, zure pentsamenduen agintaria. Ez zenuen beste inorentzat begirik, beretzat izan ezik, nahiz eta gau zoragarri harrezkeroztik ez zenuen ostera bere berririk izan.

Hilabeteak hilabeteari, gauzek okerrera egin zuten. Gauetan, ezin zenuen lorik hartu, etengabe bera buruan. Lo egitea lortzen zenuen gau bakanetan, ez zenuen lo lasai egiten, bera protagonistatzat zuten ametsek asaldatzen baitzintuzten. Ikasgelan, klasean arreta galduta, leihotik begira ematen zenuen denbora, zeruan noragabetuta zebiltzan lainoei begira. Eta igarotzen zen hodei bakoitzean bere aurpegia, bere formak, ikusten zuk. Gogogabetuta, jateari ere utzi zenion. Orduantxe konturatu zinen, bera gabe ezin zinela bizi, bere presentziarik gabe, arimaz gabetutako gorputza izatera pasako zinela.

Baina orduan, miraria gertatu zen: bera ikusi zenuen! Kaletik zihoan, ibilian. Zu berari begira geratu zinen, aho zabalik, eta kale kantoian desagertzen ikusi zenuen. Une hartan, ordu arte lozorroan egondako oinak esnatu zitzaizkizun, eta horra zu, korrika bere atzetik. Baina, berarengana hurbildu ahala, pausoa moteldu zenuen, berearekin sinkronizatu arte. Ez zinen ausartzen ezer esatera. Zer esango zenion bada? “Kaixo, badakit ez dugula elkar ezagutzen, baina hilabete batzuk lehenago ikusi zintudanetik, munduko pertsona miresgarriena zara niretzat. Erabat maiteminduta naukazu”. Ez zuen zentzurik, bertan arbuatuko zintuen. Ez zinen ausartzen. Eta beste batekin

maiteminduta balego? Ez bazintu gustuko? Horrela igaro zen ordu erdi. Atzealdetik zu, hamar metrora, zure pentsamenduetan murgilduta; aurrealdetik bera, atzera begiratu gabe.

Eta tupustean, bere bizilekua izan behar zuen etxearen aurrera iritsi zineten, zeren berak giltzak atera eta barrura sartu baitzen. Zu kale erdian geratu zinen zutik, geldigeldi. Eguzkia mendien atzean ezkutatu eta farolak piztu zirenean, hor zeunden oraino. Baina, azkenean, zure barnean zerbaitek amore eman zuen, eta buelta erdi emanaz, ibiltzeari ekin zenion. Ez zindoazen etxera, baina ez zitzaizun inporta. Oraingoan, ezintasun sentipen mingarria eragiten zizun atari hartatik urrundu baino ez zenuen nahi.

Hurrengo asteetan, behin eta berriz errepikatu zen eszena bera zure herriko kaleetan. Zu beti zeunden zain izkina berean. Bera etortzen ikustearekin bat, inguruko atari batean ezkutatzen zinen, beldurrez. Eta beti, atzetik abiatzen zintzaizkion. Zure burutik era guztietako amets eroak igarotzen ziren: bidea gurutzatzen zuenero, auto bat abiada bizian beregana oldartzen irudikatzen zenuen, eta zuk azken momentuan heroikoki eskua luzatuz salbatzen zenuela, eta bera zurekin maitemintzen zela. Baina fantasia hauek ez zuten inoiz gauzatzeko aukerarik izaten, eta eguna joan eguna etorri, bera etxean sartzen zen, eta zure oinak lurrean tinko geratzen ziren, mugitzeke, harik eta, ilargia aspaldi irtenda zegoelarik, etxerako bidea hartzen zuten arte.

Eta ez dakizu oso ondo nola, baina azkenean, lortu zenuen berari aurpegira begiratu eta berarekin mintzatzea, bion artean ezarria zen horma ikusezina haustea. Baina ez duzu gogoratu nahi, ezin duzu gogoratu egun hura. Min-

garriegia egiten zaizu hartaz oroitzea. Begirada zuzendu zizunean sentitu zenuen poza, bere ezpainen zapore gozoa lehen aldiz musu eman zizunean... Ezin duzu horretan pentsatu, bihotza ganibet zorrotz bat bezala gurutzatzen dizun min sarkor hori sentitu gabe. Jada ez dago oroitzen alairik zure memoriako lanbro laiotzen artean. Eta eguzkiak ilunetara bultzatzen duen gaueko izakia bezala, oinaze horrek orainaldira ekartzen zaitu.

Horrenbeste oroitzapenek negarra ekarri du, negarrak buruko mina. Zeure buruari galdetzen diozu ea nola demontre jazo ahal izan den duela hamar minutu gertatu dena, nola berak esan ahal izan dizun zuen artekoa errautes hutsa dela, zure animalia jeloskorraren portaera ez dela

normala. Eta bai, egia da bera beste batekin ikusten duzun bakoitzean, haserre bizian jartzen zarela eta ezin duzula jasan bera beste edonorekin barrez ikustea. Baina lehengoan berarekin ikusi zenuen hura mehatxatu bazenuen, gauean bere mugikorreko mezuak begiratzeko ezkutuka altxatzen bazara, bera inporta zaizulako, maite duzulako da. Ez da, akaso, horrela? Zeure burua horretaz konbentzitzen saiatzen zara gau eta egun, guztia beragatik egiten duzula, maite duzulako, ez duzulako bera minduta ateratzerik nahi. Horrela zuritu nahi duzu zure jokabidea.

Baina orain, zer egin? Bera badoa zure ondotik, utzi zaitu, ez du gehiago zure ondoan egon nahi. Nork zainduko du orain, nor arduratuko da berataz, ez bazara zu? Zu baitzara maite duzuna, zu ez besterik, ez berataz aprobetxatu nahian atzetik ibil dakiokkeen beste edozein ergel. Eta zuk zer egingo duzu bera gabe? Bera gabe ez zara deus, bizitzaren basamortuan amodio egarriz hiltzera kondenatuta

abandonatuko giza hondakin bat besterik ez. Berak lapurtu dizun urdea akatzeko gogo duzu. Ziur baitzaude beste batengatik utzi zaituela, zure ahultasun konplexuak ez dizu besterik imajinatzen uzten. Orduan, argi ikusi duzu egin behar duzuna. Zure bihotza izoztu egin da horretaz konturatu zaren momentuan bertan. Baina bai, argi daukazu, ez dago beste irtenbiderik, jakin badakizulako bestela ez duzula konbentzituko zurekin gera dadin, ez duzula zure ondoan atxikitzerik lortuko. Eta ihes egingo dizula, txori eder baten gisan hegan joango dela, arranoren batek ehizatzen duen arte. Irmoki, zure logela atzean utzi eta ganbararako eskailerak igo dituzu. Eskailerek aiene egiten dute zapaltzen dituzun bakoitzean, zure arimak egiten duen bezala, egingo duzun horretan pentsatzean. Baina ez dago atzera bueltarik, egin beharra duzu bere hobe beharrez. Beragatik.

Hautsez betetako ganbara zaharrera igo zara, eta automataren tankeran ibiliz, izkina batean dagoen traste zaharren pilora jo duzu. Bertan dagoen komodako tiradera bat ireki duzu. Barruan badakizu zer aurkituko duzun, zero-rrek gorde baitzuenen han, duela urteak.

Berehalakoan aurkitu duzu bila zenbiltzana. Kaxatik atera, eta zure buruaren gainetik jarriz, leihotik sartzen den argi izpiengatik dirdaika, zure aitaren ehiza labana. Zure aitak emana, etxera mozkortuta itzultzen ez zen gau urrietariko batean. “Har ezazu, haurra. Erabili maite dituzunak babesteko”, esan zizun, begietan ezin asmatuko eitearekin. Heldu da horretarako garaia. Labana eskuan, beheko solairura jaitsi zara. Bera ohean dago, zorionez. Hainbat hobe. Horrela ez duzu bere aurpegia ikusiko, azken unean. Ohe alboan jarri zara. Eta labana erabiliz, egin behar zenuena egin duzu. Beragatik.



# **Benetako maitasuna**

Uxue Millet Oyarzabal  
Urretxu-Zumarraga Ikastola  
Urretxu



Begiak ireki ditut, kostata. Arrosa koloreko zeruaren distirak ez dit, nonbait, ingurura begiratzen utzi nahi, haren edertasun goiztiarraren argitasunak itsutu nahi banindu bezala. Esku zimur bat nabaritu dut sorbaldan, atsegina, amona Milagrosenaren gisakoa. Askotan ekarri ohi ditut gogora amonaren etxeko egonaldiak, nire benetako etxea sentitzen bainuen hura; nire egiten nuen leku bakarrenetarikoa zen. Hiriko zarata eta nahasmena ez zeuden niretzat eginak; amonaren etxalde txiki eta xumean, ordea, babesa aurkitzen nuen. Amonaren etxean ez nindukeen gerraterik bortitzenak ere izutuko, ziur nago. Baina alboan dudana ez da amona, aurpegi arrotz bat baizik, nahiz eta haren eskuen samurtasunak elkar aspaldi ezagutu

genuela sentiarazi didan. Amonak esan ohi zuen hitzek ezer gutxi esaten dutela, hutsik daudela, eta benetako maitasuna beste nonbait ezkututzen dela. Igarle sentitu naiz une batez, azti, eta maitasuna ez bada ere, emakume honen eskuko zimurren esanahia argitzeko gauza naiz: leialtasuna nabari dezaket. Zera galdetu dit, ea zein geltokitan jaisteko asmoa dudan, ordu erdi pasatxo neramala Morfeoren jokoan murgilduta eta beldur zela ez ote nin-

tzen garaiz iratzarriko. Tolosako kaleak begizta ditzaket treneko leihoko kristal lodiaz bestalde; oraindik ibilbide luzea dut aurretik.

Berriro lokartu nahi nuke, astelehenetako bidaia astunari aurre egiteko: betiko bagoi hotza, betiko geltoki isilak, betiko begirada arrotzak, eta ni. Betikotasun horiek guztiek pixkanaka itzaltzen nautela sentitzen dut, indartuz doazela, ni ahulduz noan heinean. Beldur naiz egunen batean ez ote dudan errutina ankerretik ihes egiteko indar nahikorik izango. Horregatik begiak ixten ditut goizero, ihesbiderik gabeko gurpil madarikatu honetatik kanpo irteteko, begiak ireki bezain pronto ilunpera itzuliko banaiz ere. Baina oraingoan ere ez naute inongo amets gozotik iratzarri, aspaldi ahaztua daukat zer den hori.

Emakumea Andoainen jaitsi da; dentistarenera zihoan, antza denez. Adeitasunez agurtu nau.

\*\*\*\*\*

Hernani. Neskabila bikote bat igo da trenera Andoainen; parez pare eseri dira, nire ezkerretara. 22 urte inguru dituztela esango nuke, 22 udaberri. Hauek ere, goizeroko errutinari jarraikiz, unibertsitatera doaz, seguru asko. Bata Kimikako Fakultateko laborategietan galtzeko; besteari, aldiz, abokatu planta hartu diot, nork daki zergatik: estereotipoak berriro ere azpijokoan. Bi lagunetako baten negar sakonak bagoiko isiltasun amaigabea ebaki du bat-batean, eta mina errotu da gaztearen marraska nahigabetuaren lekuko izan garen ororen erraietan: bihotzik gogorrena ere samur zezakeen.

Ez da nire asmoa izan kuxkuxean aritzea, inondik inora, baina saihestezina izan da bien arteko elkarriz-

ketatik at mantentzea. Esti du izena eta maitasun kontuak dira bihotza itotzen diotenak. Honen lagunek Martin beste batekin harrapatu zuten atzo autoan, *Seat Golf GTI* beltzaren atzeko eserlekuan; elkar zenbat desio zuten erakusten zuten musu luze eta sutsuak ziren protagonista, hitzen beharrik ez zuten, laztanak aski ziren bien arteko zirrikitu estuak betetzeko. Lagunen esanei entzungor egin nahi izan zien: bere mutilak maite zuen. Itsu-itsuan sinesten zuen Martinengana lotzen zuen barreneko indar hartan; ikasi du, ordea, sugarrik handienak ere aise itzal daitezkeela. Martinek aitortu du Estik ezinezkotzat jotzen zuena eta amesgaiztoari ateak ireki dizkio: garbitu beharreko errautsak baino ez dira geratzen jada. Zoriona berehalakoan erregea da, azkar egiten da gure lagun eta azkartasun berarekin uzten gaitu bertan behera, babesgabe.

Orain su biziak utzitako tokian hausterreak baino ez dira geratzen eta, paradoxa badirudi ere, hauek dira bihotzaren benetako erreduren errudun. Estik bere nahigabeen aringarria lagunaren besarkadetan topatuko duen esperantza du, gorroto eta atsekabeari aurre egiteko ezkutu bat bailiran, baina haren begi-zuloek lau haizetara zabaltzen dute ez dela inolako babesik horrelako ekaitza baretuko duenik. Ez da izango aurten udaberririk Estirentzat.

\*\*\*\*\*

– Barkatu, tiketa erakutsiko al zenidake? —eskatu dit ahots baxuz begiratzaille ilezuriak.

Nire gogoeta sakonetik atera nau ahots-kolpe batez; nire pentsamenduen bidaia eten eta treneko eserleku deserosora itzuli naiz. Eskua luzatu diot txartela emateko eta hura begiratu ere egin gabe zirriborro antzeko bat egin dio.

Picasso edo Dalik egin izan balu, nahasmen txiki horrek dirutza balioko lukeela pentsatu dut une batez. A zer inozokeria! Baina, egia esan, ez dut arte modernoaren funtsa ulertzen. Ondoren, txartela itzuli dit.

— Egun ona izan! —esan dit adeitasunez.

Bisaian irribarre behartua zuela egin du alde, eta ez da harritzekoa; gizon koitaduak ere, nire antzera, eguneroko ohikeriaren atzaparrei nola egin iruzur jakin ezinda igaroko ditu egunak. Zera nerabilen buruan aurretik: gaztaro amodioak politak direla, buruhaustez josita badaude ere, biziki politak.

\*\*\*\*\*

Pasaia. Badator atzera begiratzaileria, irribarrea, behartua izanik ere, dagoeneko galduta. Mutil koxkor bati eskatu dio faborez tiketa erakuts diezaion. Mutiko beltzaranak patriketan miatzen duen plantak egin ditu, goi mailako antzerkia; baina Tomas (hala du izena gizon ilezuriak) ez da gaur goizean jaioa. Hakim-en poltsikoan ez da ez txartelik, ezta diru hotsaren arrastorik ere. Besotik heldu dio, estu, eta hurrengo geltokian jaits dadin agindu dio, arazorik nahi ez badu.

Erreterria. Erreterrian jaitsi da mutiko marokoarra. Lotsa izpirik sentitzen ez duela badakit, eta ez dute kikildu gainontzeko bidaiarien begirada mesfidatiek.

— Esku hutsik iristen dira, dena ematen diegu, eta hara nola eskertzen diguten! —esan du ozen gizon lodikote batek, oldarkor.

Ez naiz ezer esaten ausartu, baina zera pentsatu dut neure baitan: erraza da erantzukizuna nork bere gain hartu ordez gainontzekoei errua egoztea. Hakimek 15 urte besterik ez ditu izango, 16 asko jota. Demagun Tetuanen jaio zela, auzo txiro batean. Kaleko bizitza barneratu du, eta pixkanaka kalea ingurukoez, lagunez eta senideez, nola jabetu den ikusi du: lapurreta da jateko errekurtsorik errazena; drogak, aldiz, gosea eta beldurra uxatzeko baliabiderik eraginkorrena. Alde egin beharra sentitu du, kaleak bereak egin baino lehen. 13 urte besterik ez ditu, baina adorea du bidelagun eta Tangereko portura hurbiltzen da, beste bi adiskiderekin. Algeciras helmuga duen edozein kamioiren kargaren artean ezkutatu dira hirurak, itsasartea zeharkatzeko ilusio etsiz.

Hakimek zortea izan du eta ez dute aberriratu. Bizimodu berri bat hasi nahi du, Tetuaneko gomutak ezabatu. Goierriko etorkinen harrera-zentroetako batean bizi da orain, eta Marokon ez bezala, gaueroko ohea eta gosaria ziurtatuak dituela badaki. Ez diogu, ordea, itsasoaz bestalde hartutako ohitura zakarren kateetatik askatzen lagundu, ezta bizimodua duintasun eta zilegitasunez aurrera ateratzea zer den irakatsi ere; dena xehe-xehe eman diogu, iragana errotik deuseztatzeko arrakastarik gabeko saiakeran. Ez ote gara, bada, gu geu laguntza eman beharrean harriak botatzen dizkiegunak?

\*\*\*\*\*

10 minutu besterik ez helmugarako. Badirudi gaurko loezina mesedegarri izan zaidala; hori edo erlojua azkarrago dabil gaur goizean, bietako bat. Bagoiaren atzealdean ni bezalaxe dagoenik bada, antza denez. Haurtxo baten negar ahula entzun dezaket. Ama-sena edo piztu

zait sakonean, eta inkontzienteki burua biratu dut. Nik ere baditut bi seme: Antonio eta Miguel. Jaioberria da, pare bat hilabete baino ez ditu izango eta neska gazte batek du besoetan; oso gaztea. Biziki gogoko dut espekulazioen jolas. Haurraren ama ote da? Zenbat urte ote ditu? 18? 20? Agian deskuiduan haurdun geratu da, gurasoek, haserre bizian, laguntza ukatu diote eta aitak ezikusiarrena egin du. Edo agian haurraren zaintzailea besterik ez da.

Auskalo zein den bien arteko harremana, baina haurra maite du, zalantzarik ez dago. Begietan dirdira berezia sorrarazten dio.

Ohartu naiz maitasuna anitza dela, eta nork hura ulertzeko berezko era duela. Bikotearekiko

maitasuna, norberaren buru-estimuairekiko maitasuna, seme-alabekiko maitasuna... aniztasun eder eta oparoa, azken batean. Treneko bagoi hau emozio eta sentipenen erakuslehotzat agertu zait gaur goizean; zoritxarrez, azken urteotan Zumarragatik Irunerako bidaiaria begiak itxita egiteak mesede egiten zidala sinetsita bizi izan naiz. Honela zioen Mario Vargas Llosak:

*“Errealitatea jasanezina denean  
fikzioa gotorleku bilakatzen da.  
Goibel, nostalgiko eta ameslari  
direnen gotorleku”.*

Ohartu naiz, ordea, inongo hormaren atzean babestu beharrean bizitzari aurre egin behar zaiola. Badut nik gainontzeko bidaiariengandik desberdintzen nauen zerbait; edo, zuzenagoa litzateke esatea badutela haiek niri falta zaidanik: kementa.

Vargas Llosa amonaren idazle gogokoena zen. Gure lurrek eman duten fruiturik baliotsuena zela esan ohi zuen. Peru dut sorteri, Lima, zehazki. Gazte izan nintzen ama, eta are gazteago ezkondu. 26 urte bete aurretik jarri nituen oinak lehenengoz Espainian, ene txikiak, Antonio eta Miguel, atzean utzita amonarekin. Lanak bultzatu ninduen erabakia hartzera: nire semeentzako etorkizun oparoago bat eskaintzen zidan Espainiak. Baina dena gezurra, iruzurra besterik ez. Nire herrian esan ohi den lez: *“no es oro todo lo que reluce”*. Andaluziara joan nintzen hasiera batean, soroetan lan egiteko. Lanordu akigarriek, beroak, nekeak, denak merezi zuen. Ezerk ez ninduen geldituko. Oheratzean Antonio eta Miguelen aurpegitxoak ekartzen nituen gogora; gomuta soilek indarberritzen ninduten.

Utzi gintuzun, amona, eta senarra, Antonio eta Miguel nire albora ekarri zenituen, Espainiara. Nik ez nituen ahaztu bananduta igarotako 6 urteetan, ezta minutu bakar batez ere. Banatzen gintuen itsasoa igerian zeharkatzeko gauza sentitzen nintzen. Baina Antonio eta Miguelek 2 eta 4 urte zituzten, hurrenez hurren, alde egin nuenean, eta ez zuten euren amaren oroitzapen lausotu bat baino gordezten, agian hori ere ez. Gogorra izan zen. Baina egoera are gehiago zaildu zen. Senarrak ez zituen onartu hemen neureganatu nituen askatasuna eta ikuspegi berriak; eta gari soroek eta olibadiak errentagarri izateari utzi zioten. Traba bihurtu nintzen bertan, eta kale gorrian utzi ninduten, zakurrez nazkatu diren jabeek errepidean galduta uzten dituzten moduan, zoriaren mendeko. Senarrak ere bizkarra eman zidan; Limara itzuli zen benetan errespetatuko zuen emakume duin baten bila; bere hitzetan.

Harrezkero makina bat aldiz sentitu dut amonaren etxera ihes egiteko beharra, Liman arnas zitekeen presa,

orden eta betebeharrekin lepotik heltzen nindutenean egiten nuen antzera. Sarhuan bizi zen amona, mendi artean galdutako nekazal herri txiki batean, Pampas eta Qaracha ibaiek bat egiten duten lekuan, non denborari mugak jarzkeko baimena oilarren kantu ozenak eta eguzkiak beste inork ez duen. Hemen ez da horrelako paradisu-rik ageri, eta zin dagit bilatzeko ahaleginak egin ditudala.

\*\*\*\*\*

Irun, azkenean. Geltokia atzean utzi eta banoa lanera. Andaluzia utzi nuenetik han-hemenka ibili naiz, baina sekula ez noraezean. Ene txikiek ez lidakete barkatuko. Ihesbiderako paradisu-rik gabe aurrera egiten irakatsi dit bizitzak; izan ere, beharra bezalako irakaslerik ez omen da. Gipuzkoan badaramagu hiru bat urte. Supermerkatu batean egiten dut lan, goiz eta arratsaldean, askotan ordainketei aurre egin ahal izateko. Antonio eta Miguel erabat koxkortuta daude dagoeneko, nire beharrik ere ez dute ia. Ezin daiteke esan gaizki bizi naizenik, baina ezta ere zoriontsu. Gabezia bat nabari dut, bizi poza ebasten didana.

Gaurkoa, ordea, ez da edonolako eguna izan, eta egunari berea eman behar zaionez, kemena bildu eta amonak horrenbeste aipatzen zuen benetako maitasunaren bila hasiko naiz.

\*\*\*\*\*

Topatu dut azkenean barrena alaitzen didana, errutinarren higadura berriztatuko didana. Bai, topatu dut benetako maitasuna. Neure buruarekiko maitasuna, alegia, maitasun guztietan garbiena. Amets gozoak ez dira itzuli; zirrara-

garriagoa deritzot ametsak gauzatzeari. Axota eta papera; hauek piztu didate berriro bihotza. Zera ondorioztatu dut, ez dela bi hauen artekoa baino batasun sendoagorik; literatura, hain zuzen: mugagabea, edozein barrera gaindi dezakeena. Ez da indarririk literatura gelditzeko gai denik. Adorez blai, idazteari ekin diot eta, egunen batean, Vargas Llosaren pareko izango ez banaiz ere, baten batek nire lana aintzakotzat hartuko duelakoan nago.

Inspirazio beharrean banaiz, asteburuetan geltokira hurbildu eta trenen batera igotzen naiz, ausaz, jomugari erreparatu gabe, duela urtebete, astelehen goiz euritsu batean, nik neuk egiaztatu bainuen pertsona oro mundu bat dela, eta trenetako bagoi zaharretan kontatzea merezi duten milaka istorio ezkututzen direla.

Harro zeundeke nitaz, amona.



# **Ezezagunak**

Ane Iturriarte Basterretxea  
Gernika institutua  
Gernika



Azken zurruta eman nion aurrean nuen garagardoari. Edalontzia barra gainean utzita, erlojuari begiratu nion. Ez zen ohiko ordua biharamunean lanera bueltatu beharra zuen ni bezalako emakume batentzat. Baina ez zidan ardua. Ingurura ere begiratu nuen, eta argi gorrixkadun zulo horretan ardo usaina zerion beste gizon bat baino ez zela geratzen konturatu nintzen. Kontua eskatu eta poltsikotik hiruzpalau txanpon atera nituen, besterik ez bainuen. Gure ondoan egon behar lukeen jainkoren bati, edozeini egia esan, diru nahikoa izan nezan erregutu nion. Esan eta egin: hogeita hamar zentimo soberan. Tabernan geratzen zen langile bakarrari hurbildu nizekion txanponak, ate ondoko mahaian erdi botata zegoen agurearekin ari baitzen seshioan, ea alkohol eta bizio zulo hartatik noiz aterako. Nik ere ez nuen etxera bueltatzeko inolako grinarik, ezta aulki hartatik altxatzekorik ere. Nigmatik balitz gau osoa emango nukeen garagardo artean itota, argi gorri eta ilun haietan murgilduta. Gaua ordea gero eta laburragoa zen, ordu gutxiago falta baitziren eguzkiarekin batera azaltzen zen errutinaren iluntasun dentsuak pixkanaka-pixkanaka nire burua urkatzeko.

Jadanik zutik nengoenez oraindik bustita zegoen zoru ilunean, komunera joatea erabaki nuen jakako eskuineko poltsikoan geratzen zitzaidan azkena erretzera. Bihotz, izen eta zirriborroz beteriko ispiluan neure burua ikustea lortu nuen. Keak noizbehinka lausotzen zizkidan begiak, baina azkena zela jakinda, suminez beteriko zurrupadak medio, inoiz baino plazer handiagoz xurgatu nuen berdearen esentzia. Erretoki berrian eta subjektua bukatzeko nengoela, oihu eta soinu zalapartatsu batzuk entzun nituen. Atzamarren artekoa itzali eta atea bultzada batez ireki nuen. Agurea zerbitzaria jipoitzeko zegoela, gizonaren besoak indarrez heldu eta hormaren kontra bota nuen. Hark aldarrika ziharduen atsedetik gabe; aztoratuta, asaldatuta.

— Ez al dizu lotsarik ematen ni bezalako agure bat honela tratatzea? —egin zidan garrasi ahotik hamar zentimetrotara.

— Eta zuri, osaba, ez al dizu lotsarik ematen horrelako ardo kiratsa izatea eta emakume honekin zure ezbeharrak ordaintzea?

Asaldatutako sumendia pixkanaka baretzen hasi zen. Begietara begiratzeko ere ez zen gai gizona. Baretasun hartaz baliatuta, atzera begiratu eta zerbitzariak amantaleko poltsikotik ateratako zapi batekin malkoak lehortzen zituela ikusi nuen. Eskuekin begiak igurzten zituen, neke, beldur eta negargura zeudela tarteko. Ospa egiteko agindu nion kikildutako morroiari. Bertara inoiz ere ez bueltatzeko. Eta haren arazoei aurre egiteko, ardotan ez itotzeko. Atea ireki eta berehala irten zen lokaletik. Buelta eman eta ohikoa zen erdi-zorabioa sentituz, gazteari begiratu nion. Nengoen lekutik atzeman nituen dardarak. Haserrealdian

lurrera eroritako erratza batu eta lanean jarraitu zuen ezer gertatu ez zenarena egiten. Baina ni ez nintzen inor bera-gana hurbiltzeko, ezta besarkada babesgarria emateko. Ez zegokidan niri hori egitea. Pare bat gautan baino ez dut ikusi neska, ezezaguna naiz berarentzat.

Gau ona izan zezan opa bezain laster irten nintzen ni ere. Osabarekin aurkitzeko beldurra banuen, bai, baina ga-ragardoek eta erretakoak ematen zidaten konfiantzaz baliatuta kaleratu nintzen. Bi pauso eman eta lurra mugitzen ari zela pertzibitu nuen. Hormari heldu eta bidea jarraitu nuen zebra-bidera heldu arte. Lerro izan behar zutenak kurba bihurtu ziren. Buruak birak ematen zizkidan. Autoak ez nituen ikusten, argiek zorutzen ninduten. Hankek indarra galdu zuten. Ez nuen nora heldu eta bidea lau hankatan edo ahal nuen moduan gurutzatzea erabaki nuen. Garra-siak, klaxon-hotsak eta barreak, ordea, inoiz baino altuago entzuten nituen. Guztiz lotsatuta ukitu nuen lehen hormari heldu eta zutik jartzeko ahaleginetan ibili nintzen hura lortu arte. Burua haren kontra jarrita lehen malkoek bidea egin zuten masailetaraino. Bat-batean minez, presioz eta malenkoniaz beteriko olatu batek irentsi ninduen. Etxeko ataria pare bat kalera bazegoen ere ez nintzen gai bertara heltzeko. Beraz, lepoak horman behera egin, zoru hotzean eseri eta negarrari eman nion. Malko kontrolaezinak ziren, meteoritoen antzekoak.

Azkenaldian gertatutako guztia gogora etorri zitzaidan bat-batean. Kaka zaharra. Garagardoan zerrenda infinituak ez zuen eraginik izan, ezta okinaren semeak saldutako be-larrak ere. Diru hura guztia pikutara. Eta zertarako? Bakar-dadeak irensteko eta bihar berebiziko burukomina izateko. Horretarako. Betiko hausnarketa. Eta betiko damua. Izo-

tutako ura ematen zuen tanta bat erori zitzaidan burura. Tanta erori orduko, haren mugimendua sentitu nuen: nire ilearen kontra egindako eztandan zitzu bizian norabide desberdinetara zabaldu ziren partikulak. Eta konturatu nintzen gauzak ezin zitezkeela gehiago okertu.

Egunak eman nituen taberna hartara bueltatzeko go-goekin, zerbaitek bertara eramaten baininduen. Burua oinarri lodiko edalontzietan nuen bulegoan beharrean. Jendea joan eta etorri, orduak eta egunak ere aurrera egin zuten. Diseinu-lan desberdinetan murgildu nintzen, guztiak momentu hartan gertatzen ari zitzaidan barne-gatazka horren adierazle. Imajinazioa borborrean nuen, ideiak etengabe jaurtitzen nituen orri zurietara. Tinta orbanak nituen eskuetan; niri bost axola. Noizbehinka, eta batez ere nire lankideak jada ez zeudenean, orriek begietatik sortutako hezetasun ñabardurak ezagutzen zituzten. Agian ukitu pertsonalagoa ematen zien horrek nire lanei. Nire burua haratago zihoan. Argi bakarra utzi nuen piztuta, orriaren mugak ezagutzeko nahikoa. Xafla zuri eta mehe horren aurrean eserita, beragan pentsatzen hasi nintzen. Gogameanean nuen min guztia arkatxur baten bidez islatu nuen. Amorruek bereak eta bi egin zituen, eta orria busti ez ezik, zulo nabariak ere egin zituen. Nola izan nintekeen halako txoroa? Nolatan utzi nion joaten halako pertsona bati? Koldarra. Ausarta nintzela-eta nengoen; inozoa, bai, ni. Intimitate guztia galdu nuen orri zulatuaren aurrean. Biluzik sentitzen nintzen, babesik gabe. Argi-iturri ahulak ere ez zuen laguntzen eta nire barneak gero eta hutsago zeudelako sentsazioa handitzen zihoan. Huts-hutsik, paper zati ustel baten aurrean biluz-biluzik. Nork esango hura izango zela nire ihesbide bakarra, karta-sortako azken aukera. Noizbait punta-puntako itsasontziko bidaiaria izan banaiz ere, orain itsasoan galdurik dabilen materia-gorputza baino ez naiz.

Egunak daramatzat bulegotik irten gabe eta lankideak kezkatzen hasiak dira. Sara, bereziki, askotan etorri zait arduratuta gaur. Datorren bakoitzean kontzentrazio guztia pikutara bidaltzen badit ere, inspirazioak ez du ihesbiderik. Kristalezko lau hormak nire gotorleku bihurtu direnetik txutxu-mutxuak entzutea ohikoa egin zait. Eta ez denez unerik onena txutxu-mutxuoï aurre egiteko, bertatik irten eta gaurkoz lana amaitutzat ematea izan da har nezakeen erabakirik egokiena.

Bueltaka ibili nintzen kaleetatik. Okinaren semea oporretan egon izan ez balitz beragana hurbilduko nintzatekeen. Baina behingoz burua altxatu eta egun zoragarri hartaz gozatzeko premia sentitu nuen. Pare bat auzotan ibili nintzen bueltaka, bankuren batean ere eseri nintzen jendeari erreparatzera. Baina nahita edo nahi gabe, egurrezko ate potolo hura irekitzen eta barra aurreko eserlekuan bukatu nuen. Nork jakin zertarako. Bertan egoteko premia nuen.

- Aspaldiko. Gaur ere hemen?
- Ez al nauzu ikusten! Atera iezadazu garagardo bat.
- Arazoak? — itaundu zuen zerbitzariak trapu heze horia nire aurreko tartean pasatzen zuelarik.
- Ez da nire momenturik onena.
- Edateak momentu hobeak dakarzkizu ala?
- Ez da hori. Burua beste nonbaitera daroat, arazoak momentu batez gutxienez desagertu egiten dira.
- Eta hori al da zure arazoan irtenbidea?

— Eta nik zer dakit! Ez nago hizketaldi serioetarako. Eta gainera, ez dut uste ezezagun bati zure arazoak kontatuko zenizkiokeenik. —erantzun nion eskuineko eskuarekin bekokia bortizki laztanduz.

— Ongi da.

Isilune luze bat sortu zen bion artean.

— Ez dakit nola eskertu pasa den astekoa.

— Gorde eskerrak. Egin nezakeen guztia egin nuen. Espero dut gizona berriro bueltatu ez izana.

— Gizon hori zure osaba da. Eta ez, ez da bueltatu. Sentitzen dut momentuan bertan ezer esan ez izana, baina guztiz ikaratu ninduen haren oldarkortasunak.

— Badakit. Horregatik atera nintzen zure defentsan-irribarre lotsati bat bota nion.

Apurka, gero eta hizketaldi interesgarriagoa suertatu zen. Berezkoa, inolako kate edo errepresiorik gabekoa, garbia, lasaia. Nik hirugarrena bukatzerako, berak ere bat egitea erabaki eta nirekin beste pare bat hartu zituen. Oraingoan, bakar-bakarrik geratu ginen taberna hartan. Barreek lokala bete zuten. Bera, amantala kenduta, nire ondoko eserleku batean eseri zen. Ardo kopa eskuan zuelarik inoiz izan dudan bero-uneren bat ekarri zidan burura. Ea bikoterik zuen galdetzea bururatu zitzaidan orduan, ezezkoa izango zen desirek begiak ixtera eraman nindutela. Ezezko hura inoiz entzun nuen ezezkorik aringarriena izan zen. Garagardoa eskuetatik kendu, barran utzi eta eskua belaun gainean jarri zidan. Burua nire aurpegirantz

altxatu eta begirada pulstu luze bat mantendu genuen, berarenganantz hurbiltzen hasi eta gure ezpainak bost zentimetro eskasera gelditu arte. Bere arnasa senti nezakeen, haren ezpainen idortasuna pertzibitu. Barreen arrastorik jada ez zegoen zulo hartan. Eta nigandik hurbilen sentituko nuen bere azken arnasa izango zena pertzibitu ostean, atzera egin zuen. Gorrituta zegoen, eta nik sakon hartu behar izan nuen arnas. Ulertzen nuen. Arraroa izan zen gertatutakoa. Arraroa, halako zerbaitera heldu izana ezezagun batekin.

— Tira, taberna ixteko ordua da. Hobe etxeratzen bazara.

— Bai, bihar goiz jaiki behar dut lanerako. Pasatuko naiz besteren batean.

Berarengana hurbildu nintzen pare bat muxu eta besarkada bat emateko intentzioarekin. Nire sorpresa bera hurbildu eta ezkerreko masailean muxu luze eta bakarra eman zidanean izan zen. Hura muxua. Aspaldian gehien sentiarazi zidan muxua. Leuna, goxoa, epela. Oritzapenek bidea egin zuten, gorputz guztian zehar oiloipurdia jarriz, adimenera heldu arte. Ignorantziari ateak zabaldu eta honek egin beharrekoak burutu zituen bera baino ez zedin egon nire buruan. Eta hala izan zen.

Ohera sartu eta edozer emango nukeen hura ere izara zuri haien artean nirekin batera galtzeko, lorik ez egiteko, burua galtzeko eta baita arnasa ere. Imajina nezakeen ametsik ederrena izan nuen gau hartan. Izugarrizko pena eman zidan, eguzkiaren izpiak sartzen zirela, segapotoko iratzargailuak jo zuenean hura etetea, baina banekien gutxiago falta zela bere irribarre bihurri hori ikusteko. Eguna ordu-

lariari begira eman nuen. Noizean behin zirriborroren bat egiten nuen, baina ez zegoen bera ez zen beste ezerentzat lekurik nire buruan. Irribarre txoro eta urduria ere ez zen falta izan lanetik irteteko hiru minutu eskas falta zirela ikusi nuenean. Gauzak bildu, poltsan mahai gainekoak sartu eta sarrerako lore ontzitik hiru bitxilore hartu nituen. Ordulariari azken aldiz begiratu nion. Gaueko bederatzia puntu-puntu. Ziztu bizian atera eta autoa hartu nuen. Kaleak zeharkatu nituen, tabernatik ehun metrora aparkalekua aurkitu eta munduko pertsonarik zorionekoena sentitu nintzen.

Behar nuena hartu eta bertara abiatu nintzen munduko ilusio handiena soinean. Atea ireki eta bera izan zen ikusi nuen lehen gauza. Lepoa ematen zegoen. Beltzez jantzita, granate-koloreko amantala eta adats luze eta iluna: beti bezala. Ohikoa zenez, taberna ixtear zegoen eta hala jakinarazi zion berak ere, oraindik atzez, sartu berria zen bezeroari. Inongo ate-soinurik ez zela entzun-eta, arduratuta, biratu egin zen. Euria zerion bere aurpegian. Ni ikustean azken tantak lehortu eta irribarre mozarrotu bat eskaini zidan. Aurpegi horrek guztiz apurtu ninduen. Ez nekien nola jokatu, zer esan. Sar nintekeen galdetu eta, erantzuna jasotzean, barra gainera oraindik igo gabe zegoen aulki bakarrean eseri nintzen.

— Arazoak? — galdetu nion guztiz kezkatuta.

— Ez nuke gauza hauei buruz bezero batekin hitz egin behar.

— Ni ez naiz edozein bezero.

Berriz hainbeste gorrotatzen nituen isilune haietako bat. Jada ezin nion begirada pultsu bat bota, malkoz be-

tetako begi horiek barrako gainazalari begira zeudelako. Jaka kentzen nuen bitartean momentu deseroso hura apurtzeko ahalegina egin nuen berarengana gehiago hurbiltzeko intentzioarekin.

— Lana?

— Hotz.

— Familia?

— Antzeko zerbait, epel.

— Pertsona bereziren bat?

— Eta erre egin nintzen.

— Erre?

— Bihotza kiskali zidan, zimeldu.

Nik ere lurrera begiratu nuen, eztarrian berebiziko korapiloa sortu baitzitzaidan.

— Eta atzokoa, zer?

— Begira, atzokoa ez dakit nola gertatu zen, nola heldu ginen hartara. Ni edanda nengoen eta zu are gehiago, eta ez ginen gertatzen ari zenaren jabe.

Sakonenera erori nintzen inolako indargetzailerik gabe. Nolatan hori? Zertara zetorren hori atzokoa gertatu ostean?

— Zuk edan aurretik izan genuen solasaldia, beraz, iruzurra izan zen?

— Begira, Diana, —arnasa sakon hartu zuen— gurea ez dut oraindik gainditu. Bihotza puskatu zenidan, suntsitu. Zatiak bildu eta berreraiki behar izan nuen bakar-bakarrik. Inorengatik sentitu ez dudana sentitu dut zugatik. Eta guztia bidali zenuen pikutara gau bakar batean. Txarrena, ez zinela izan gai aurpegia eman eta duela urtebete gertatutakoaren ardura zugan hartzeko. Hona etortzen hasi zinenean, ez nekien nola begiratu behar nizun, ezta nolako erlazioa izan behar nuen zurekin. Zure osaba gauero etortzen zitzaidan mehatxatzera, mozkor. Eta ni bakarrik; inolako defentsarik gabe, ardo kiratsa zerion ni baino bi buru handiagoa zen gizon puska baten aurrean. Zuri min eman izana leporatu izan dit azken hilabeteotan, zuk horri pasa den astean amaiera jarri arte. Eta ez dakit eskerrak eman behar ote dizkizudan, hori baita hasiera batetik egin behar izan zenuena. Zure osaba dela, Diana; zure amarekin batera hezi zaituen pertsona. Ulertzen dut horrela hartu izana, baina adarrak jartzeko gai izan bazinen egunero printzesa deitzen zenion honi, baita haren ondorioei aurre egiteko ere.

Burua igurtzi nuen, ezin nuen sinetsi gertatzen ari zena, bera birkonkistatzeko ahaleginak pikutara joan zirela.

— Arrazoia duzu. Koldar bat naiz. Gau hartan ez nintzen ni. Edanda nengoen, bakarrik sentitzen nintzen. Egun osoa pasatzen zenuen liburutegian, liburu artean, eta ni bitartean, etxean bakar-bakarrik. Erre ere egin genuen eta ez nintzen gertatzen ari zen guztiaren jabe. Ez nuen bestea inondik inora ezagutzen. Ez nuen ezta neure burua ezagutzen. Eta bai, akatsa izan nuen. Akats handia, izugarria, nire bizitzan sentitu izan dudana maitasunik handiena

kendu didan errorea. Eta zin dagizut gertatu zenetik ez dela egon egun bakar bat hartaz damutu ez naizenik. Ausaz sartu nintzen tabernara, tabako bila. Eta bertan ikusi zintudan, beti bezala. Pare bat hilabete pasa behar izan ziren lehendabizikoz nahita hona sartu arte. Ez naiz damu. Bai ordea atzokoaren ostean berriz ere nirea zinela uste izanaz. Ameslari izateari ez diot inoiz utziko, badakizu. Eta honelako danbadak jaso behar baditut ere, onartuko ditut; baina ez diot inoiz utziko amets egiteari.

— *Joder*, Di, ez al zara konturatzen ametsak amets direla? Hau mundu erreala da. Zorigaitz eta zorionen mundua. — isilune laburra— Nik ere ez dakit orain zer sentitzen dudan. Nahastuta nago. Ezin dizut esan atzo ez nuela bestelako ezer sentitu, ez baita egia, baina ezin dizut inola ere aitortu maite zaitudala. Inork baino min handiagoa egin didazu. Eta nik ere ulertzen dut zuk konpondu nahi izana, baina gauzak ez dira horren azkar ahazten. Bost urte pikutara bota zenituen. Eta inork baino hobeto dakizu zer diren bost urte horiek nire bizitzan. Diana, etxetik joan behar izan nuen. Zurean aurkitu nuen babesa, eta gertatutakoaren ostean, berriz ere kale gorrian. Erabateko bakar-dadea lagun nuela. Lagunak eta familia atzean utzi behar izan nituen. Baina bizitza berria dut orain. Nik neuk sortutako eta fakultatean ezagututako lagunez osaturiko familia berria. Ez. Ez dut inor berezirik nire bizitzan, izan dudan gauzarik bereziena zu izan zarelako; eta ez duzu hori ikusten jakin, zugatik egindako sakrifizio guztiak...- negarrak eragindako agonia sumatzeko berari entzutea besterik ez nuen; lotsatuta, ez bainintzen hari begiratzeko gai.

— Eta orain zer? — galdetu nion urdailean azkenaldian izandako korapilorik handiena sentitzen nuela.

Isilunea.

Begietara begiratu zidan.

— Ezezagunak, momentuz.

— Ezezagunak, beraz? — listua irentsiz tentsioak esturiko faringean barrena.

— Ezezagunak.

Begiak estali eta hura sinetsi ezina adierazten zuen azken irribarrea atera zitzaidan. Buruarekin ezetz nioen, ahoa mutu. Isilik jaka jantzi, eta poltsatik ateratako paper tolestua barra gainean utzi nuen. Nigana hurbildu eta azken besarkada eman nion. Bizitzan izandako amestu nezakeen gauzarik perfektuenari. Eta bere ezpainen nireak agurtzeko elkarrekin egin zuten topo azken aldiz. Papera hartu eta zabaldu egin zuen. “Arnas bakoitzean ere eder”. Hori da musu baten ilustrazioaren azpian ageri zen esaldia. Berak ondo zekien haren esanahia. Ez zitzaion gustatzen printzesa deitzea, ez baitzitzaizkion kolore arrosa zein soineko distiratsuak gustatzen. Biok ginen arima libreak. Koroa generaman buru gainean, biok berdin-berdina, baina ilea beti solte, orraztu gabe. Ohikoa ez zena gustatzen zitzaigun: hondartza neguan, igande euritsu eta goibelak, hotzak eragindako babes sentimendua...

Azken malkoek bidea egin zuten bion aurpegietan, eta nik berarenak lehertzeko intentzioarekin atzamarrak hurbildu banizkion ere, honek aurea hartu eta berorrek lehortu zituen. Atetik irten nintzen, eta autoko gidariaren tokian eseri bezain laster, negarrari eman nion. Garrasi egin nuen, aldarri. Orain bai. Galdua nuen. Betirako. Bere

“momentuz”ak ez ziren beste edonorenak bezain literalak. Nahikoa ezagutzen nuen hori jakiteko. Halako batean, koploduaren aldera begiratu nuen. Ahaztuak nituen. Indarrez hartu eta korrika hurbildu nintzen berriz ere tabernara, jadanik itxita egongo ez zen esperantzarekin. Pertsiana erdi jaitsita bazegoen ere, atea oraindik zabalik zegoenez sartzea erabaki nuen. Beno, egia esan, burua baino ez nuen sartu gorputz erdiaz jarraiturik. Zorua garbitzen ari zenak ere burua altxatu zuen.

— Ezezagun batek hauek ekarri ditu beste ezezagun batentzat.

Orain bai, azken irribarre hori ikusita, hiru bitxiloreak, bion lore gustukoenak, atean utzi nizkion. Barrualdean, kanpoaldean utzi ezkerreko gaueko izozteak erreko baitzituen, gure amets, ilusio eta maitasunarekin gertatu zen bezala.



# **Bera**

Irati Ricon Santoyo  
Beasain institutua  
Beasain



Galtzerdi galdu bat lurrean botata, bi soineko eta gona bat ohearen gainean, alkandora bat aulki baten bizkarraldean, belarritako batzuk eta bularretako zuri bat idazmahaian, eta galtza bakero batzuk nire hanketan gora.

Dagoeneko ordu erdi daramat arropa jantzi, ispiluan begiratu, nire burua gorrotatu eta soinean daramadana baztertzen. Berdin dio zer jantzi, dena iruditzen zait dese-gokia: formalegia, informalegia, ilunegia, koloretsuegia... Eta, gainera, ispiluan begiratu eta honek nigan gehien gorrotatzen dudana baino ez dit erakusten: sudur handiegia, nire gerri inguruko gantz gorrotagarria, nire ile kizkurregia... Bakeroak estuegi gelditzen zaizkidala ikusi eta, besterik gabe, kendu eta lurrean botata utzi ditut. Zeinek jasan lezake horrelakorik? Ez al dut aurkituko egokia den eta ondo gelditzen zaidan arroparik?

Indargabe bezala sentitzen naiz eta soineko, gona, alkandora edo galtza perfektua bilatzeari uzteko gogoak daukat. Nire logelatik alde egin nahi dut, nahas-mahasa atzean utzi eta egongelara joan, aita eta ama besarkatu eta beraiekin telebista ikusteko, beldurra sentitzean beti egin

ohi dudan bezala. Aita eta ama, Andres eta Maite, beti nire ondoan izan dudan bikotea. Azkenaldian gutxitan esertzen gara elkarrekin telebista ikusteko eta elkarri ematen dizkiogun besarkadak gero eta urriagoak dira, euren erruz, nire erruz, berdin dio, baina gaurtik aurrera urriagoak izango direlakoan nago.

Eguna beti bezala hasi da. Iratzargailuak jo, ohetik altxatu, komunean hamar minutu luze pasa, baso bat esne edan eta eskolara joan naiz. Baina gaur ez da egun arrunt bat, ez, gaur betiko gogoan izango dudan eguna da, hemezortzi urte luzez itxaroten egon naizen eguna.

Irakasleei arretaz entzun diedala edo ariketak egiten ahalegindu naizela esango banu, gezur galanta esaten ariko nintzateke, egun guztia koadernoetan marrazkiak egiten eta leihotik begira igaro baitut. Uneoro nire burua beste leku batean egon da, hodeietan murgilduta, arratsaldeko hitzorduarekin ametsetan. Egia esan, ez naiz inoiz ikasle saiatua izan, beti ibili bainaiz despistatuta, edozein gauzarekin amets egiten, baina gaur ezin izan dut gizon gazte horren aurpegia nire gogamenetik aldendu. Behin eta berriz marraztu ditut bere irribarre gozoa, bere begi ilun malenkoniatsuak, bere ile beltzeko kizkur menderaezin horiek, eta neure burua bere aldamenean marraztu dut, bere besoa nire gerriaren inguruan dagoelarik.

Ikaskide eta irakasleek egun osoan zehar arduraz beteta begiratu naute, eta batek baino gehiagok galdetu dit ea zer gertatzen zaidan, ea ondo nagoen, baina ezer azaltzen hasi baino, nahiago izan dut isildu eta irribarre mutu batez erantzun.

Azkeneko aste honetan dena izan da isiltasun, hemezortzi urte bete ditudanetik, karpeta horretan jartzzen zuena irakurri nuenetik, dena da isiltasun. Gurasoen eta hiruron artean isiltasun dentso bat ezarri da, eta gure harremana betiko kutsatuta gelditu dela iruditzen zait. Lagun taldearen eta nire artean ezarri den isiltasuna, ordea, ukiezina da, ikusezina, ia existitu ere egiten ez dena, baina hor dago, agerian, nire urtebetetzean egin zidaten opariari buruz galdetzen didaten bakoitzean. Opari berezi horri buruz jakiteko irrikatzen daudela badakit, baina ez dut ezertxo ere esan, isiltasuna izan da eman didan erantzun bakarra, gurasoek eta nik bakarrik dakigu zer den. Eta berak, noski.

Bere aurpegi gozoan berriro ere pentsatzean beldurrak hartu nau, urduritasunak, eta koldar sentitu naiz. Une batez lurrean eserita geratu naiz, burua hanken artean ezkutatuz, nire burua ezkutatuz, eta, lasaitu nahian, arnasa zenbat aldiz hartzen dudana kontatu dut. Hogeita hamabigarren arnasaldian, urduritasunak nire bihotza estutzeari utzi diola sentitu dudanean, zutik jarri eta berriro ere armairu barruan begiratu dut. Soineko hau itsusiegia da, ez dakit zergatik erosi nuen! txandala, berriz, kalera ateratzeko ere ez nuke jantziko! Zergatik gordetzen dut alkandora hau? txiki xamar daukat! Galtza hauek zulo bat dute belauanean... Amonari konpontzeko eskatu behar diot igandean bere etxera bazkaltzera joaten naizenean.

Alferrik da, nire armairuan ez dago ezer egokirik... Agian amarenean... Hau da, Maiterenean... Soinean kularoak eta bularretakoa soilik ditudala, logelatik irten eta gurasoen logelan sartu naiz. Sartu bezain laster, atearen parean dagoen gorputz osoko ispiluan nire islari begira

geratu naiz. Zer pentsatuko du berak gaur arratsaldean lehen aldiz elkar ikusten dugunean? Nire sudurraren neurritz gaineko tamainaz ohartuko al da? Edo naizen bezalakoa ikusiko nau eta ikusten duena gustatuko zaio?

Begirada ispilutik aldendu eta amaren armairua ireki dut, nire beldurrak uxatu nahian, nire bihotza astintzen duten eta kontraesanean dauden sentimendu suntsitzaileak zokoratu nahian. Urtarrileko merkealdietan erosi zuen alkandora ilun bat ikusi eta pentsatu gabe hartu dut, aproposa izango delakoan, baina janztean eta berriro ere ispilura begiratzean, ez zaidala ongi gelditzen ikusi dut. Azkenaldian ez zait ezer ondo gelditzen!

Amaren armairua goitik behera arakatu eta gurasoen logela hankaz gora utzi ondoren, nire logelara itzuli naiz, etsita. Ohean eseri eta gertuen dagoen gau-mahaiaren gaineko argazkiari begira geratu natzaio. Aurreko ostiraleko argazkia da, nire urtebetetzeko argazkia. Hor dago Andere irribarrez, Maitane lurrean botata, Ekaitz beti bezala imintzioka, Xuban beste aldera begira, Maddi eta Aroa elkar besarkatzen, Libe begiak itxita, Ioritz, Enara, Aiert, Isa... Eta denen erdian ni, irribarretsu, lagunekin nire urtebetetzea ospatzen pozik.

Egun horretan ez nuen hainbeste arazo izan arropa aukeratzeko, soineko beltz berri bat jantzi nuen, parrandan ateratzeko aproposa. Normalean, arropa ez zait gauza garrantzitsuena iruditzen, baina gaur dena da garrantzitsu. Gainera, amak, Maitek, beti esan dit lehen aldiz norbait ikusten zaituenean zuri buruz ideia bat sortzen duela gogamenean, eta nekez alda daitekeela iritzi hori, beraz, hitzordura perfektu joan behar dut, bere adimenean utziko dudana azterna ezin hobea izan dadin.

Gela arretaz arakatu dut, inspirazio bila edo, eta hor ikusi dut Errauskineren ipuina, liburutegiaren azken apa-lean, txikitako ipuinen artean. Nik ere, Errauskinek bezala, maitagarri bat eduki nahi nuke, bat-batean agertu eta nire arazoak konpontzeko, batez ere arroparekin erlazionatu-tako arazoak. Nire burua Errauskineren soinekoarekin iru-dikatu dut, eta barre egin dut. Barre urduria izan da, pixka bat histerikoa, eta karpeta hori irakurri nuenetik barruan izan dudan irrika eta urduritasun zurrumbiloa nire barnetik irten da, supituki, mundura malko moduan azaleratuz.

Negar egin dut, erlaxatzeko, behar nuelako, barruan gordetako guztia askatu behar nuelako, beldur naizelako, honekin bukatu nahi dudalako, gurasoen musu eta be-sarkadak behar ditudalako, nik ere maitagarri bat nahi dudalako, urduri nagoelako, ohean sartu eta betiko lo egin nahi dudalako, nire sentimenduak ulertzen ez ditudalako.

Nire barruko zurrumbiloa lasaitu eta nire malkoak le-hortu direnean, berriro begiratu diot Errauskineren ipuinari eta ohetik altxatu egin naiz hura hartzeko. Orriak poliki-poliki pasa ditut, irudiak ondo aztertuz: saguak, amaorde eta ahizpaordeak, erlojua hamabiak jotzen, maitagarria... Berriro ere maitagarriarengan pentsatu dut, magia egin de-zakeen norbait nire ondoan egotea desiratuz, arropa egokia aukeratzen lagundu diezadan eta nire malkoak xuka ditzan.

Nola ez zait lehenago otu? Maitagarri bat behar dut! Ipuina ohearen gainean utzi eta mugikorra hartu dut. Nire maitagarriari laguntza eskatzeko ordua da.

Ordu eta erdi geroago, ispiluaren parean nago, jan-tzita. Maddiri esker, nire maitagarri eta lagun kuttunari esker, arropa aukeratu dut azkenean: probatu eta hasiera

batean ilunegia izateagatik baztertutako soinekoetako bat eta berak utzitako txaketa lorehun alai bat. Maddik ilea orraztu dit eta, ondoren, besarkatu egin nau. Beti daki zer egin ni lasaitzeko eta maitatua sentitu nadin, beti dago niri laguntzeko prest eta ni bera laguntzeko prest. Ahizpa bat bezalakoa da niretzat, agian oso antzekoak garelako: biok ditugu arazoak ikasketekin, bioi film berdinak gustatzen zaizkigu, biok adoptatuak gara, bioi gustatzen zaigu gehiegi parrandan ibiltzea...

Logelatik irten eta gurasoak nire zain daudela ikusi dut, biak serio, biak triste. Amak, Maitek, besarkatu egin nau eta Maddirekin eta aitarekin, Andresekin, etxetik irten eta autoan sartu gara. Oso urduri nago, ezin dut bere aurpegia nire gogotik aldendu. Minutu gutxi barru ezagutuko dut.

Azkenean, helmugara iritsi gara, kafetegi parera. Maddik zorte on opatu dit eta aitak, Andresek, muxu bat eman dit kopetan. Astiro-astiro atera urreratu naiz, arnasarik hartu gabe, eta atea irekiz, barrura sartu naiz. Begiradarekin kafetegia arakatu dut, bere irribarre gozoa bilatuz, bere begi ilun malenkoniatsuak, bere ile beltzeko kizkur menderaezin horiek. Hor dago, mahai horretan eserita, edarien karta aztertzen. Oraindik ez nau ikusi. Mahairantz abiatu naiz, zalantzez beterik, beldurturik. Zer pentsatuko du ni ikustean? Dezepzionatu egingo da?

Bide erdia eginda dudanean, kartatik begirada altxatu eta ikusi egin nau. Beregana hurbiltzen ari naizen heinean, begira gelditu zait, begiak zabal-zabalik, ahoa irekita, mamu bat banintz bezala. Argazkian baino gazteagoa dirudi, sentiberagoa, gertukoagoa.

Azken boladan gaizki pasatu du, badakit, orain dela gutxi hil baitzen bere neskalaguna. Bere neska zenaren argazkiak ikusi ditut, oso polita zen: ile kizkurra, begi ilunak, sudur handi samarra... Hamabost urte zituztela hasi ziren elkarrekin eta orain dela gutxi, bat-batean, hemeretzi urte elkarrekin igaro ondoren, bakarrik gelditu da auto-istripu baten erruz. Bakarrik elkarrekin hainbeste gauza bizi ondoren: institutuko giroa, festak, bidaiak, gazteak zirelarik elkarrekin alaba bat izan eta adopzioan eman behar izana, lana lortu eta elkarrekin ospatzea, bata bestearen malkoak xukatzea, alaitasunak partekatzea...

Agian horregatik dira malenkoniatsuak bere begiak, gehiegi sufritu duelako, eduki zuenaz etsipenez oroitzen delako. Gaur bere neska berarekin egotea nahiko zukeela uste dut eta nik ere, egia esan, hori nahiko nuke.

Bere parera iritsi naiz eta aulkitik altxatu eta nire parean jarri da.

— Zure amaren antza duzu.

— Badakit... aita.



# **Gaberako aterpea**

Jon Larrabide Fuldain

Lauro Ikastola

Loiu



Izarren dirdirak bidea esku xumez argitzen zuen gau hartan. Kaleak hutsik, etxeak argiz. Zaborrontzi artetik ospa zihoan katu beltzak aurkeztu zuen gizon- gutxienez kurioso- hura bizitzaren eszenariora, tabako keak hortz-arteko hutsuneak xamurtasunez betetzen zizkiola, balantzaka, noraezean zihoan hori, karpeta besapean, negarra bihotzean, bere gainean osatzen zen izarren mapa miresten zuen bitartean. Ibilera geldoz, herdoilak jandako farolek marraztutako kalean aurrera, kontzertu zaharrak anuntziatzen zituzten kartekez apaindutako hormen artetik, isilik, haizeak etxe hutsetan egin ohi duen bezala, aurkitu zuen babesa, gorputz fisikora mugatzen den hori.

Giltzak oraindik eskuan zituela igo zituen amaigabeko eskailerak, eskaloiz eskaloiz, gero eta makurrago gero eta zimurrago, ahalik eta bere ganbarako atea aurrean agertu zitzaion arte. Sarraila goxo ferekatu eta giltza astiro-astiro sartu zuen, lehen aldian bezala. Bi bira eman eta pisu txikiak ongi etorria eman zion.

Sarrerako altzarian giltzak utzi eta zapatak eransten zituen bitartean gelarako bidea hartu zuen. Gaur ez zeukan

burua sofan etzanda husteko asmorik. Lurra osatzen zuten egur xaflen bluesaren pausoak markatzen zuen bere oinen erritmoa, bere buruak kantua hitz egokiz gorpuzten zuen bitartean. Gorpua ohe gainean erortzen utzi zuen, oihal eta burusien ekaitzak itotzen utzirik, Morfeoren lausoak bere egiten zuen bitartean, malkoak malenkoniatsu bere bihotz antzua ureztatzen hasiak zirenean.



Eguzkiaren lehen argi izpiek Luisen begiak zauritu zituzten, mahai-gaineko erlojuak gaueko hamarrak markatzen zuten momentu berdinean, alde egindako gaztaroaren oroigarri. Ohetik jaiki, aurreko eguneko arropak jantzita zituela egiaztatu eta bere ilean kosmos apur bat ezarrita sukaldarantz bideratu zen. Han betikoa, harria gainezka, armairuak gosez, hozkailua izerditan, eta rococo estiloko sukaldea koroatzen zuen aspaldi erretiratutako bonbilla. Albo batean beltzunea zuen sagar bat hartu eta Higidura Zuzen Irregulararki Azeleratuaren formula jarraituz etxea atzean utzi zuen.

Herri berri batean esnatu balitz bezala sentitzen zen. Eguzkiaren argiak kaleetan duen lifting efektuak miretsita. Kaleek kapitalaren erritmora arnasten zuten egunez eta kapitalarekin amestu gauez, ametsek mundutarren ordutegian tartetxo bat duten artean behintzat, hala ere poetak ez du errealitatea den bezala azaltzen, aspertzen da hura begiratu, berotu harekin jolastuz, tartean ez duelako den bezala ikusten, ez dizkiolako muga fisikoak ezartzen eta Luisek, poesiaz bizi zuen egunerokotasuna. Hala ere egunean egunean denborak gehiegi errimatzen zuela sentitzen zuen. Gurasoen hileta elizkizunen kanpaiak, bukatu gabeko zuzenbideko graduako klase arteko txirrinek, aspalditik hona

zuen ez tul kronikoak, bere psikologoarenganako bisitak markatzen zituzten, baina nora arte heltzen da surrealismoa, psikologiarentzat ere ulergaitza zarenean?

Federico Garcia Lorca ren Romancero Gitano poesia liburua esku artean heldu zen parkera, goizez familia zoriontsuen erakusleihu eta gauez bihotz bakartien amildegia. Liburua markatutako orrialdetik zabaldu eta ozen irakurtzeari ekin zion:

*La luna vino a la fragua  
con su polisón de nardos.  
El niño la mira mira.  
El niño la está mirando.*

Eguna itzaliz zihoan eta honek berba jarioarekin zira-rauen. Ordurako gurasoak tipo marjinal bihurtu ziren, umeak drogaz bizitza eraiki duten itzal eta txupeteak, txupeteek ez dute metamorfosirik behar. Gauaren sentimendu hotza hezur artean sentitzen hasterako poetaren hitzek malkoen putzu bat osatua zuten aurrez aurre, arima ustelaren isla helburu bakar zuen hondorik gabeko putzua. Minak bere egin zuen giza oskol hutsal hau bi hankaren gainean zutitu eta balantzaka, herdoilak janda zituen kaletan barrena estaltzen hasi zen.

Tabernaz taberna barreneko zauriak nolabait garbitzeko zerbaiten bila nortasuna galdu zuen Luisek. Mozkorrek, mundu bikoitz batean bilatzen baitute bakarrean aurkitu ezin duten zoriontasuna. Ordu luzez basoaren konpainia osatzen duten izotzekin batera urtu eta hauek uzten duten ur putzuan murgilduz, osatu zuen gizon tristetaren balada, zerbeza trago mingotsen artean nota altuak haien presentzia azpimarratzen zutela.

Etixerako bideak deja vúa sentiarazi zion, balantzaka, kea ahotik zeriola, liburua poltsikoan eta negarra begietan, patuaren morrontzan arrotz sentitzen zituen kaleetan barrena. Banku umel bat aukeratu zuen jartzeko, aingura botaz, inguruko galerna baretzeko eta orduan ahots goxo batez hasi zuen marmarka:

*Puedo escribir los versos mas tristes esta noche.  
Escribir por ejemplo: "la noche esta estrellada,  
y tiritan, azules, los astros, a lo lejos."  
El viento de la noche gira en el cielo y canta.*

Eta horrela abesten zuen berak, gaueko haizeak bezala, etxerik etxe bere oparixoa utziz, aterik ate, argiz argi baina beti ilunpean, gaueko haizea bezala. Kantua bukatzerako izarrek negar egiteari ekin zioten, ume txikiek bezala, hitz entzungaitzen artean barkamena eskatzen zuten bitartean. Ordurako ordea Luis alde eginda zegoen, poesiatik kanpo aurkitzen ez zuen gaberako aterpe baten bila.

• • •

Izartzeak barrenean min egin zion beste egun batez, sofán aurkitzen zen, bart gaueko malenkonia jipoiaz suspertu gabe, negarren gaindosiak eragin ohi duen deserosotasun propioa zainetatik zuela. Gaur ez zuen altxatzeko gogorik, hain eroso zegoen kuxinek soilik igorri dezaketen goxotasunean murgildurik, zerbeza pitxerren lakartasun, tabakoaren zakartasun eta tristuraren zorrotasunetik babesturik. Sukaldeko erlojuak ordu biak markatzen zituen, egongelakoak seiak, bere erloju biologikoa kanpaiak jo eta jo zebilen eta hala ere goizegi zen ezer ospatzeko.

Mahaiaren laguntzaz jaiki eta komunean bota zen, bezperako hitzak bertatik behera isuriz, horrela haien zikingu-neak desagertuko zirelakoan. Hala ere komunak ez zen lortu barneko ustelkeria garbitzea ezta dutxako ur hotzak ere. Aulki gainean siku gelditzen zitzaion arropa jantzi eta ohean sartu zen. Behatzak gogortuta zituen, begiak zimelduta, bihotza, bihotzik ez zitzaion gelditzen jada. Ze geltokitan jaitsi zen bere gaztaroa, zeinetan bere zoriontasuna, zeinetan dirua eta zeinetan duintasuna, zeinetan bere bizitza?

Berandu zen afaltzeko eta goizegi bazkaltzeko, beranduegi pentsatzeko eta goizegi arnasteko. Segundoez zizel finez zauritzen zuten bere burua, azken hau, sukartsu errealitate eta fikzioaren artean bidaiatzen zebilen artean. Mahai gaineko antsiolitiko poteak eszena borobiltzen zuela, lasaitasunaren irudi, ametsetan sasi-poeta loak hartzen zuen bitartean.

• • •

Gauetz argizarietako sugar dantzariak besterik ez dute lumaren bidea argitzen. Mahai gainean tinta, giza-kiaren existentzia iheskorren orban betierekoa, amets eta sentimenduz gorpuztua, giza aberea bere esanetara. Luma maneiatzen duen esku zimurtuak ez du bere atzeko paperezko gizona islatu besterik egiten, azken hatsa paperean inprimatzen duen bitartean, tintak tonalitate gorria hartzen duen artean.

Leihoaren bestaldean kale hutsak, ilargiaren zilar koloreko argiak margotuta, heriotzaren igarle, heriotzaren ikusle, gaberako aterpe bila.



# **Urak eta haizeak dakartzaten gutunak**

Araitz Peña Mallona  
Lauaxeta Ikastola  
Zornotza



Uda izango zen lehen gutuna idatzi nuenean. Kresal usaina eta haize epela leihotik sartzen sentitzen nituen arrats haietan. Kostaldeko herri txiki hartan ez nuen lagunik, ez bainintzen besteen modukoa. Gurasoek Mediterraneora eramaten ninduten eguzkia hartzera, hezurak indarberritzera. Egun osoa terrazan etzanda egoteak izugarri aspertzen ninduen eta, horregatik, arrats hartan, gutun bat idaztea erabaki nuen. Ez zegoen inori zuzenduta; egia esan, ez nekien inoren helbiderik. Hala ere, hartzaile ezezagunari idatzi nion gutun hura, nire uda aspergarria kontatzeko asmoz. Ez zen izan batere polita, ezta interesgarria ere, baina ez dut inoiz ahaztuko amaitzean sentitu nuen poztasuna. Botila batean sartu, kortxoa jarri eta hondartzara jaitsi nintzen, etxeak zuen egurrezko eskailera estu batetik. Eguzkia itsasoan sartzen ari zen, itsasertzera heldu nintzenerako. Indar guztiekin jaurti nuen botila itsasora eta olatuen bits zuriak eta korronteak kostaldetik urrun eramane zuten, nigandik urrun. Barrena hutsik gelditu zitzaidan momentu hartan, eta berriro ez nuela gutunik idatziko zin egin nion neure buruari, hustasun hori berriro ez sentitzeko.

Handik urte batzuetara jan nuen nire hitza. Instituan bazen neska lirain eta eder bat, Filosofiako klasean nire ondoan jesartzen zena. Ez naiz inoiz izan oso aditua ahozko komunikazioan; eta beraz, gutun bat idaztea pentsatu nuen, nire maitasuna helarazteko. Akats handia izan zen hura, neskari gutuna poltsan utzi eta hurrengo egunean lekuz aldatu baitzen, nire ondoan ez egoteko. Bihotza urratuta eta negar malkotan, berriro hitz eman nion neure buruari: “azken gutuna izan da”. Aitortu behar dut lehen eta azken maitasun gutuna izan zela ordukoa. Horretan, behintzat, nire hitza mantendu nuen.

Hala ere, gutunak berriz sartu ziren nire bizitzan lanean hasi nintzenean. Familiak ez zuen dirurik nik unibertsitate ikasketak egin nitzan; beraz, institutua amaitu eta jarraian hasi nintzen lanean, herriko posta bulegoan. Lanik onena, gutunik idatzi nahi ez zuen gaztearentzat. Lehen urtea langile beteranoei kafea eramaten eman ondoren, goiz euritsu batean, zuzendariak bere bulegora joateko eskatu zidan. Atea ireki eta paper mendiak ikusi nituen nonahi. Ez nuen uste zuzendariaren lana hain neketsua zenik. Sartu eta berehala giltza batzuk ikusi nituen niregana hegan. Airean harrapatu eta segituan ulertu nuen zein izango zen nire lana ordutik aurrera.

Korrika irten nintzen bulegotik, oihuka zuzendariari eskerrak emanez; eta kalean lotuta zegoen bizikleta hartzera joan nintzen. Giltzaz giltzarrapoa ireki eta laster batean nintzen pedalei eragiten. Euri-tantek aurpegia garbitzen zidaten, kale labainkorretan barrena nenbilen bitartean. Askatasuna zen nire bizikleta, askatasuna euria eta haize freskoa. Bat-batean konturatu nintzen zerbait falta zitzaidala. Noski, gutunak! Ziztu bizian itzuli nintzen

bulegora; zegokidan poltsa hartu eta banaketa egitera irten nintzen berriro.

Horrelakoa izan zen nire bizitza 45 urtetan. Beno, ez gutziz berdina. Hamar bat urte gutun artean eman ondoren, gaztaroko zina ahaztua nuen jada, eta gutun bat idazteko gogoia izan nuen. Arratsalde osoa eman nuen gutun hura idazten, txikitako uda hartan egin nuen legez. Hala ere, oraingoan ez zen kresal usainik sartzen leihotik, ezta hai-zerik ere. Hiriko zaratak eta euri usaina ziren nagusi nire auzoan. Nahiz eta arratsalde osoa gutuna idazten eman, esaldi bakarra idatzi nuen: “Gutuna da gizakiak egin dezakeen literatura ederrena”. Hurrengo goizean, banaketa egiten nenbilela, lorategi txukuna zuen etxe bateko postontzian sartu nuen. Berriro sentitu nuen hutsa nire barrenean, iluntze hartan itsasertzean sentitutako moduan.

Hurrengo urteetan berdina egiten jarraitu nuen: noizean behin gutun labur bat idazten nuen, pare bat esaldi. Hurrengo goizean, ezezagun baten postontzian sartzen nuen. Ez nuen erantzunik espero, ez nuen helbiderik jartzten, ezta niri buruzko daturik ere. Urteak aurrera joan ziren eta erretiroko adina heldu zitzaidan. Ordurako bidaliak izango nituen ehunka gutun, agian milara ere heldua izango nintzen. Hiriko etxe askotan jasoak izango zituzten nire esaldiak, gutunei eta postariei buruzkoak. Haien ziren nire liburuak, nire idazkiak, eta ni haien idazlea. Oso arraro egiten zait neure burua idazle ikustea, nahiz eta gutunak literatura izan niretzat. Erretiroak bizikleta eta banatzeko gutunak kendu zizkidan eta, haiekin batera, bizipoza. Ezin izan nuen hilabete ere eman etxean. Bigarren eskuko denda batean bizikleta bat erosi, pasaporte hartu eta Frantziara joan nintzen.

Eskolan ikasia nuen frantses apur bat eta Ipar Euskal Herrian ikasitako beste apurrarekin Parisera heldu nintzen. Etxe txiki bat alokatu nuen Montmartren, garaje txiki bat sotoan zuena. Arratsaldeetan hasten zen sorkuntza prozesua. Parisen, egia esan, ez nuen ezer sortzen; Victor Hugoren poesietatik hartutako esaldi bat kopiatzen nuen paperean eta auzokide atseginen koloretako postontzietan sartzen nituen gutunak, bizikletaz paseo bat ematera irtean nintzenean, goizean goiz. Oraindik sinesten dut esaldi horiek irakurtzeak egunak pozten lagunduko ziela jasotzaileei.

Paris izan da nire literaturaren hiria azken hamabost urteotan. Orain, laurogei urte lepoan ditudala, etxera bueltatzea erabaki dut. Azken gutuna idatzi, ezagunak agurtu eta nire lehen gutuna eraman zuen itsasoan betirako lo geratu. Horretan nabil orain, azken gutuna idazten, irakurtzeko prest dagoenarentzat. Nire bizitza agian ez da interesgarria izango hau irakurtzen duenarentzat, eta arrazoi osoa izango du. Ez dut bizitzan aparteko ezer egin. Gutunak idatzi eta ezezagunen artean banandu baino ez dut egin. Frantzia baino ez dut ezagutu, Mediterraneo eta nire herria alde batera utzita. Postari hutsa izan naiz, bizikletaz ibiltzean libre sentitzen zen postaria, postari idazlea.

Atzo gutun arraro bat jaso nuen. Txiletik zetorren eta nahiko zaharra ematen zuen. Ni Parisen nengoela heldua zen, antza, eta orain, etxean nengoela, helarazi zidaten nire lanpostu ohia betetzen zuten gazteek. Pakete bat zen, kartoizkoa, eta nire helbidea jartzen zuen, erdarazko grafian idatzita. Ireki eta botila bat aurkitu nuen, gutun-azal batekin. Txilen jaiotako Santiagok sinatuta zegoen gutuna, eta umea zela igartzen zen. Data duela hogeita bost urte

ingurukoa zen; beraz, paketea ere nahiko berandu bidali zutela pentsatzen dut. Santiagok gutun hura idatzi baino bi urte arinago aurkitua zuen botila, Viña del Mar hirian oporretan zegoela. Itsasoan ikusi zuen nire botila, berrogei urte baino gehiagoz mundu osoko itsasoak eta ozeanoak zeharkatu ondoren. Gutuna izugarri gustatu zitzaiola zioen, nahiz eta hitzak oso arraroak zirela esan. Gutunean nire datuak agertzen zirenez, bi urteren ostean niri idaztea pentsatu zuen, oraingoan posta arruntez.

Ez nuen gogoratzen nire helbidea gutun hartan jarri izana, baina nire azken urte hauetan datu haiek idatzi izanaz pozten naiz. Milaka gutun idatzi ditut nire bizi-tzan zehar, eta erantzuna jasotzeko aukera gutxien zue-narengandik jaso dut gutuna. Santiagoren hitzek gogora ekarri didate lehen gutun hura idazten amaitu nuen uneko poztasuna, eguzkia sartzen eta botila urruntzen ikusi nue-neko hutsa, bizikleta ziztu bizian hiriko kaleetan gidatzea eta Montmartreko auzokideen irribarrea. Baliteke bizitza honetan gauza handirik egin ez izana, baina bizitza benetan bizi izan dut, topera. Gutunak izan dira nire ardatz, bizikleta izan da egun haizetsuetan eramaten gaituen haize indartsua. Azken gutuna ere esaldi batekin amaitu behar dut. Oraingo hau ez da nirea, gure herriaren jakintza benetan adierazten duen atsotitza baizik: urak dakarrena urak daroa, edo nire kasuan, urak daroana urak dakar.



# **PROSA. B maila**

DBHko 3. eta 4. kurtsoak



## **Doinu bat iluntasunean**

Irantzu Zubeldia Olasagasti  
Aita Larramendi Ikastola  
Andoain



Batzuetan ez dut ulertzen zer den bizitza. Begiak itxirik dituzula jaiotzen zara, negar eta oihu zalapartatsuen artean, kanpoan zain zer duzun ez dakizula. Iluntasun beltzean murgildurik, leiho itxi horien artetik argitasuna noiz sartuko den itxaroten ari zara. Laztan, irribarre, musu eta ahots gozoez inguraturik zauden bitartean, zeure leihoak ireki eta zeu bizi zaren iluntasunetik urruntzeko zain zaude, sentsazio, usain eta soinu desberdinak ezagutzeko.

Argitasuna zeure begietan barna sartzen den unetik aurrera, forma eta kolore desberdinak ezagutzen joaten zara, baita gaua eta eguna, edo zeure familiakoen irribarre gozoak ere. Pixkanaka, denbora luzez ezagutu nahi izan duzun mundua ezagutzen joaten zara, leku ezezagunak, jende berria eta gauza sinestezinak ikasiz...

Urteak igaro ahala, une alaiak zein tristeak birituz zahartzen joaten zara eta zeure motorrak mantsotzen hasten dira, egun guzti horietan zehar beti martxan izan duzun bihotza gelditzen den arte. Egun hura iristean, orain arte ederki funtzionatu izan duen makina gelditu egiten da eta ez da inoiz gehiago mugitzen. Iluntasun beltz hartan

murgiltzen zara berriro, deskubritu berri duzun mundu hura ahantzirik. Ez duzu oroitzen laztan edo irribarrerik txikiena ere, eta munduari leihoak berriro irekitzeko indarrrik gabe geratzen zara. Horrexegatik bizitza ulertezina dela iruditzen zait. Eta are gehiago niretzat.

Askok diote bizitza abentura berri bat dela, opari zoragarri bat, azkeneraino aprobe txatu behar den oparia. Baina nire kasuan nahiko ezberdina da. Edo hori uste dut behintzat. Izan ere, ez dakit zertarako balio duen iluntasunean murgilduta bizitzeak, zerk inguratzen zaituen ez dakizula eta agitasuna zer den inoiz jakingo ez duzula.

Nire izena Arnold da, Arnold Anderson. Duela gutxi bete ditut hamazazpi urte, eta esan liteke nire bizitzako lehen malko eta oihuez geroztik oraindik ez dudala izara beltz eta amaigabe hau besterik ikusi. Mundura iritsi nintzenetik, nire ingurukoen xuxurla edo txutxu-mutxuak izan dira ezagutu ahal izan ditudan gauza bakarra. Gainera, ingurukoei lagundu beharrean, traba besterik ez dudala egiten iruditzen zait. Izan ere, pausurik txikiena emateko ere norbaiten laguntza behar dut, itsuentzako makila berezi horrek ez baitit askotxo ere laguntzen. Bai familia eta lagunak niri laguntzen egoten dira uneoro, baijan ez da batera atsegina mugimendu txikiena ere egiteko laguntza behar izatea. Gauzak bakarrik egiten saiatzen naizenean inguruko aulki eta objektu guztien aurka talka egin eta sekulako nahas-mahasa sortzen dut. Horregatik, orain nagoen moduan, ohean eserita pasatzen ditut ordu gehiena.

Baina bada ondo egiten dudan gauza bat. Harritzekoa bada ere, pianoa jotzen artista naiz. Edo hori esaten didate inguruek, behintzat. Aitak irakatsi zidan pianoa jotzen, bere ere ni bizi naizen iluntasunean murgilduta geratu zen

arte. Oraindik ere negar egiten dut aita galdu nuen egun hartaz oroitzen naizen aldiro. Pianoa joz arindu behar izaten dut tristura hori. Eskuak teklatuaren gainean jartzeaz batera, bakarrik mugitzen zaizkidala iruditzen zait, doinu ezberdinak atzamarretan grabatuta izango banitu bezala. Pianoa jotzen dudana aldiro, nire buruko kezka guztiek hegan ihes egiten dute eta inguratzen nauen iluntasuna koloreztatzen da. Eskuak pianoaren gainean batera eta bestera dantzatzu, nire iluntasunaren leihotatik argi-izpi txiki batzuk sartzen direla sentitzen dut.

Nire gelarantz hurbiltzen ari diren pausu batzuek atera naute nire pentsamenduetatik. Bere pausu arin eta azkarrengatik berehalaxe jakin dut ama izango dela. Gehien maite dudana pertsonetako bat da bera. Nirekin dagoenean, ahots gozo eta leunarekin zuzentzen zait, ni lasaitzen nauen ahots lasai eta atseginean. Baina sarritan entzun izan dut bere ahots kezkatu eta urduria, familiako beste norbaitekin hitz egiten ari denean. Eta badakit aitaren huts handia duela. Baita nigatik oso kezkatuta dagoela ere. Ama gelan sartu denean nire alboan eseri eta besarkada bat emanez, bere ahots gozoaz mintzatu zait:

— Ez duzu uste kalera atera behar zenukeela? Egunak daramatzazu etxetik irten ere egin gabe, eta haize fresko pixka batek on egingo dizula uste dut.

Horixe da egin nahi nukeen azken gauza. Ez diot inori enbarazu egin nahi eta gorputza nekatuegi dudala sentitzen dut kalera irteteko. Horregatik, ez diot erantzunik eman. Isil-isilik geratu naiz aurrerantz begira.

— Arnold, badakizu zeure onerako esaten dudala. Ainarazure bila etorri da lehen, ordu bete barru etortzeko

esan diot, kalera joateko prestatzeko denbora izan dezazun.

Ainara. Bera izan da nire lagunik onena orain arte. Berak lagundu dit kalean zehar ibiltzen eta berak lagundu izan dit orain arte mundu beltz honetan bizitzen. Baina azkenaldian ez gara lehen bezainbeste elkartzen. Izan ere, unibertsitatean hasi da aurten, eta bertako lagun berri eta lan astunen ondorioz ez du nirekin egoteko denborarik ere.

Azkenean kalera irtetea erabaki dut. Kalean hotz egiten du, baina honenbeste denbora etxean eman ondoren atsegina iruditzen zait freskotasun hori. Haizeak aurpegia ferekatzen didan bitartean kalean aurrera jarraitu dut, Ainararen eskuek nire besoa inguratzen dutela. Neskaren eskuek segurtasuna ematen didate pausu bakoitzean. Halako batean, piano baten doinu triste eta isila entzun dut. Adi-adi geratu naiz doinu eder hura entzuten. Noizbait doinu bera entzun dudala iruditzen zait. Ibiltzeari utzi eta doinu hori nondik ezagutzen ote dudan pentsatzen geratu naiz.

Ainara zerbait esan nahian ari zaidala ohartu naiz. Baina neskari kasurik egin gabe, geroz eta isilagoa bihurtzen ari den piano hotsa entzuten jarraitu dut. Doinu motel hura gelditu bezain laster Ainararen ahotsak esnarazi nau nire mundutik. Inguruko jendea geuri begira dagoen sentazio arraroa sentitu dut.

— Zer gertatzen da?-galdetu diot harriturik.

Arnold! Jakin al daiteke zertan ari zaren bide erdian etzanda? Zorabiatu egin zinela uste nuen!

Harriturik lurrean etzanda nagoela ohartu naiz. Nes-  
karen laguntzaz lurretik jaiki eta ea berak ere pianoaren  
doinua entzun duen galdetu diot. Ainarak erotuta banengo  
bezala begiratu dit.

— Inor ez da pianoa jotzen aritu, Arnold. Zeure irudi-  
pena izango zen edo benetan zorabiatuko zinen.

Baina ni ziur nago doinu geldo eta triste hura nire bela-  
rriekin entzun dudala. Erabat ziur. Badakit ez dela nire iru-  
dipena izan. Inguruko jendea bertatik urruntzen dela iru-  
ditu zait eta lasai jarraitu dut kalean aurrera. Ezker eskuan  
nire makila laguntzailea, eta eskuinekoan Ainararen besoa  
ditudala, plazarantz abiatu gar. Zergatik iruditzen ote zi-  
tzaidan hain ezaguna doinu hura? Plazara iritsi garenean  
bertako eserlekuetako batean eseri naiz, Ainara taberna  
baterantz urruntzen den bitartean.

“Ez egin erokeriarik ni ez nagoen bitartean. Bost minu-  
tutan hementxe izango naiz”, esan dit eserlekutik urrundu  
baino lehen. Bankuan eserita egotea erabaki dut bertatik  
mugitu gabe. Haurren barre hotsek eta haizea besterik ez  
dira entzuten. Makila bankuaren alboetako batean utzi  
dut. Eta halako batean berriro gertatu da. Pianoaren doinu  
tristea entzun dut. Aulkitik altxa eta entzuten geratu naiz.  
Doinu honek begiak dizdizka jarrarazten dizkit. Makila  
hartu eta piano hotsa nondik datorren ikertzera joatea era-  
baki dut. Plazatik asko urrundu gabe aurkituko nuen.

Pare bat haur eta farolen aurka talka egin ondoren,  
haurren jolaslekutik urrundu eta doinua datorren lekurantz  
hurbildu naiz. Plazatik dezente urrundu behar izan dut,  
nahiz eta soinuaren jatorritik gertu nengoela iruditu, han-  
dik pixka batera soinua urrutiagotik zetorrela iruditzen zi-

tzaidan. Errepidea zeharkatzen hasi naiz, baina erdialdean nengoenean, makila lurrera erori zait. Ia non nagoen ere ez dakidala, lurrerantz makurtu naiz makila hartzeko. Ez dakit semaforoa zer koloretakoa egongo zen, baina orduantxe entzun dudana auto baten balaztada gogorra izan da. Lurrera erori eta konorterik gabe geratu naizela uste dut. Izan ere, ez nuen inguruan zegoen iskanbila entzuten, nire buruan jarraitzen zuen donu hura, besterik ez.

Begiak zabaldu ditudanean begietan min ematen zidan distira argitsu batekin egin dut topo. Ordu laurden bat behar izan dut gutxienez argitasun horretara ohitzeko. Pixkanaka, forma, objektu eta kolore ezberdinak desberdintzen joan naiz. Nire etxeko pianoaren aurrean nago eserita. Harriturik begiratu diot inguruari. Inoiz ez nuen imajinatu ere egingo pianoa nire begiekin ikusi ahal izango nuenik. Hortz zuri eta beltzez osatutako teklatura, eta egurrezko kaxa handi bat ematen zuen tapakia zituen. Harriturik nire atzamar eta eskuei begiratu diet, eta nire adinerako apur bat txikiegiak direla iruditu zait. Ezkerreko sorbaldaren gainean esku handi eta bero bat dudala ohartu naiz. Hasi-eran amaren eskua dela pentsatu dut, baina bere eskuak ez dira hain handiak. Halako batean, ahots ezagun bat mintzatu zait pianoa jotzeko esanez, eta nire eskuak edozein momentuan hozka egin diezadaketan hortzen artean mugitzen hasi dira.

Zur eta lur geratu naiz jotzen ari nintzen doinua entzutean. Kanean entzun dudana doinu berbera ari naiz jotzen! Eta orduan ulertu dut dena. Atzerantz begiratzen saiatu naiz, aitarean aurpegia nire begiez ikusi nahi bainuen, behin bakarrik bazen ere. Baina atzerantz begiratu dudanean, kolore eta forma guztiak nahasten hasi direla konturatu naiz. Gela biraka hasi da eta pianorantz begira-

tzean, tekla guztiak hozka egiteko gozoz dauden hortz batzuen antzera airean ikusi ditut. Zorua alfonbra bat balitz bezala tolestu eta bortizki mugitzen hasi da. Ingurua geroz eta lausoago ikusten dudala iruditu zait eta pixkanaka, iluntasunean murgilduta geratu naiz.

Sekulako iskanbilak neure onera ekarri nau. Anbulantzia eta udaltzainen autoaren sirena hotsa entzuten da nire inguruan. Jende mordoa dago inguruan eta sekulako zalaparta entzuten da. Ama eta Ainararen ahots kezkatuak entzuten ditut nire aldamenean. Zer gertatu den gogoan ez badut ere, pianoaren doinua etorri zait burura. Doinu hura izan zen pianoz jotzen ikasi nuen lehen abestia, aiatak irakatsita. Eta orduantxe ohartu naiz, bizitzak baduela nolabaiteko zentzua, nahiz eta inguratzen zaituen guztia ikusteko aukerarik ez izan. Izan ere, nahiz eta bihotza betirako gelditzean une eta sentipen guztiak ahaztu, martxan jarraitzen duen beste bihotz baten oroimenean geratuko baitzara. Nire aita nirean gelditu den bezalaxe.



## **Azken hatsa**

Ainhoa Gojenola Urrutia  
Lekeitio institutua  
Lekeitio



Orduantxe ohartu nintzen. Eszenatokiko fokuek aurpegia biluzten zidaten bitartean. Aulki zahar batean eseririk. Isiltasun sarkor eta aldi beran liluragarriaren lurri-naren pean. Momentu hartan ni neu nintzela sentitzean. Ingurukoen miresmen aurpegiak niregan finko sumatzean. Orduantxe ohartu nintzen. Hala ere, istorioa hasieratik has-tea hobe delakoan nago, jada amaiera kontatu baitizuet ere.

Ez dut sekula ahaztuko banda zuzendariaren ahotik irtendako “prest zaude” hura. Ez dut sekula ahaztuko mo-mentu hartan mitxeletak ene barrenean sentitzearen sen-tsazioa. Barreneko mitxeleten sentsazioa eta ingurukoen poztasuna. Amari kontaturikoan jaso nuen musu beroa. Aitari kontatu eta segituan luzatu zidan bostekoa. Ez ditut sekula ahaztuko. Kontzertu garrantzitsu batera sartzekoa naizen honetan are gutxiago.

Aurrera, atzera, aurrera, atzera. Egin beharreko guztia ongi gogoratzen dudala probatzeko ahaleginean, edota ba-rurutik jaten nauen urduritasun honi aurre egiteko borrokan, gelditu ezinean nabil atzera, aurrera, atzera, aurrera.

Aitortu beharra daukat ez naizela urduri jartzen den pertsona horietakoa. Zergatik jarri behar gara urduri ba? Zergatik geure buruaz duda egin? Ba al da nahikoa besteek guregan ez sinestea geuk ere ez egiteko? Honelako pentsamendu arraroak ari dira nire barruan dantzari bandakideen begiradekin gurutzatzen naizen bakoitzean. Batzuek irribarre egiten didate. Badira gehiegi hurbiltzen ez direnak edota aldamenera etorri eta “egon lasai” xuxurlatzen didatenak. Gehienetan hitzik ez egiten saiatzen naiz. Urduritasuna ezkutatzeko irribarre ia ikusezinez baliatuz. Horrelako momentuetan ez dut ene lagun maitea beste inor behar inguruan. Momenturik zailenetan laguntzen didana, beti barneak pizten dizkidana. Nor beste izan zitekeen nire oboea baino.

Eszenatokira irteteko ordua iritsi dela sumatu dut giroan. Isiltasunak eta jendearen norabideak, atea metatzat, salatu dute hainbeste itxarotako ordua. Nik ere gauza bera egin dut pauso bakoitzean urduritasuna atzean utziz.

Aulki zahar batean eserita. Aurrealdean melodiez ase beharreko ehunka pertsona. Inguruan jada urte askoz ezagutzen ditudan kideak. Giroan isiltasun samurra. Zuzendaria noiz irtengo itxaroan mundu guztia.

Zuzendariaren irteera, ikusleen txalo zaparrada, bandakideen arteko begirada konplizeak, partiturak beren lekuan ipini eta jotzen hasteko ordua. Zuzendariaren begirada nire gainean. Erantzun gisa “prest nago” bezala itzul daitekeen buru mugimendua. Aldamenekoaren ostiko samurra. Nirekin dagoela adierazten duen ostiko samurra. Zuzendariaren eskuen aireratzea. Hegoak bailitzan mugitu eta lehen nota gozoaren sorrera.

Hiru konpas. Hiru konpas besterik ez nire momentua heltzeko. Hiru konpas Ennio Morricone maisuaren “La Mission” abestia jo behar dudala barneratzeko. Hamabi segundotan itzul daitezkeen hiru konpas. Ezer pentsatzeko astirik ematen ez duten eta aldi berean barrenak nahasten dituzten hamabi segundo.

Lehen “la” lotsatia irten da ene instrumentuaren barretetik. Honi segika beste hainbat nota. Nota bakoitzarengan azaldu ezin diren milaka sentimendu. Samina eta tristura. Poza eta lilura. Zerbait bihotzez amestu ezkeroko egi bihurtzen denaren itxaropena. Zutik jarri eta hegaka hasi nintekeenaren sentsazioa. Bizitza den tunel beltz honen amaieran, oso urrun, nabari dezakedan argi zuria. Maite ditudanei zor diedan guztia.

Melodiak aurrera jarraitu ahala gogora milaka oroitzapen. Gaurkoan kolorez jantziriko nota hauen jatorria. Behinola oboearen barnetik irteniko nota meharrak go-goan. Denboraren poderioz janzten joan naizen nota meharrak. Hasiera hasieratik gurasoen aurpegian irribarrea marrazten zuten nota meharrak. Ingurukoek perfekzio sinesgaitz horretara helduko zirela zinez zekiten nota mehar haiek.

Melodiaren punturik delikatuenera heltzear jada. Garondoko hileak kizkurtzen dituen “si” luzea. Ni itsu uzten nauen nota luze hori. Ingurukoa estali eta nire barrukoa aireratzten duen nota luzea. Hainbeste gogoko eta gutxitan bizitzeko aukera izan dudana sentsazioa. Beste nonbaitera bidaiatzearen pare. Begiak ireki eta amets ederretik esnatzearen beldurra arerio bakartzat.

Abestia itsasora heltzear dagoen ziurtasuna. Melodia bakoitzak, erreka bailira bezala, haien ura itsasora isurtzeko ordua. Hainbeste maite dudan mundu honetatik esnatu eta errealtatera jauzi egiteko ordua. Azken “re” indartsua aireratzeko momentua. Sabeleko mitxeletak eztarrian gora doazenaren irudipena. Azken nota desagertzean ahotik irtengo zaizkidan mitxeletak.

Abestiaren amaiera. Zuzendariaren hegoak berriz jais-teko ordua. Minutu magiko hauei amaiera emateko momentua. Begiak ireki eta aurrera begiratzea. Isiltasuna. Isiltasun luzea. Txalorik eza. Bost segundotik gora irauten duen isiltasuna. Benetan laket dudan isiltasuna. Sarritan isiltasuna baita oihurik ozenena. Zuzendariari so egin eta zutik jartzea adierazten duen zeinua. Bi aldiz pentsatu gabe zutitu naiz hegan egiteko itxaropenez. Halaxe izan da. Txalo zaparrada. Inoiz entzuniko txalo zaparradarik handiena. Zuzendaria hurbildu egin zait eta musu eman dit masailean belarrira “eskerrik asko” xuxurlatu didalarik. Malkoak masailean behera irristatu zaizkit. Ikusleei begiratu diet. Irribarre egiten saiatu naiz malkoak masailean behera jarraitzen dutelarik.

Ikusleen begietan ere malkoak; hala ere, malko haien azpian miresmena nabari dut. Haien bihotzetara heldu naitzela ohartu naiz. Honek poztu egin nau. Zinez poztu. Izan ere, musikari bati egin diezaiokezun oparirik handiena haren lana entzutea da. Entzutea oparirik handiena bada ezin duzue imajina zer den entzulearen bihotza ukitu duzula jakitea. Hegan egitea lortu duzula jakitea.

Orduantxe ohartu nintzen. Ingurukoek miresmenez begiratzen zidatela ohartzean. Aulki zahar batean eserita.

Eszenatokiko fokuek aurpegia biluzten zidaten bitartean. Begiak malkoz beterik eta nire belarriak txaloen soinuaz disfrutatzen. Orduantxe ohartu nintzen zenbat zor nien ingurukoei. Banda zuzendariari momentu hau bizitzeko aukera ematearren. Oboeko irakasleari benetan balio dudala irakastearren eta edozertarako prest dagoela erakustearren. Gurasoei beti nigan sinestearren. Zuei, ikusleoi, momentu hauek bereziak egitearren.

Orduantxe ohartu nintzen ingurukoei zor nien guztia, azken hatsa eman eta berriz aulkian esertzean.



## **Ordua da**

Karmele Garatea Zaballa  
Lekeitio institutua  
Lekeitio



Ordu bakoitzeko orain bat, iragan bat. Ordu bakoitzeko aurrerapen bat, atzerapen bat, pertsona bat. Ordu bakoitzeko pausu bat. Ugari dira orduak eta ugari pausuak.

Bakarra da orduen eta pausuen eraginez osatutako ibilbidea, istorioa.

22.02. Sofan etzanda nago, telebistako irudiei begira, denborari ihes egiten utziz, segundoak bueltatzeko nahia-  
ren aurrean. Telesailaren ildoari heltzen saiatzen naiz noiz-  
behinka, baina ihesi doa, askatu berria den txoria bailitzan.  
Begirada telebistan so, pentsamenduak buruan arre. Hura  
baita nire pentsamenduen eragile, nire ardura eta beldurren  
sortzaile, hilabete osoko euria bezain astuna egiten zaidan  
telesail poliziakoa. Galdeketaren gizonarenari ez bezala,  
lasaitasuna dario nire begiradari, lasaitasuna nire gorpu-  
tzaren pausatzeari. Lasai nago, aspaldi onartuak baititut  
nire planaren ondorioak.

Gogoan ditut amaren laztanak, faltan haren errietak.  
Belarritik helduta ateratzen gintuen ohetik domekero,  
elizara berriz berandu joan behar izanaren komerian, den-

borari ihes egiten utzi izanaren damuan. Gorroto nuen goizeko lehen uneen laztasuna, gogoko begiak irekitzerakoan amaren aurpegi leuna; eguna hasteko modu gazi-goza. Denboraren poderioz ikasi nuen ordurako esnatu eta janzten, joan ziren aldarteak lasaitzen, goizak baretzen, denboraren poderioz hasi ginen errutinaren esklabo bihurtzen.

23.04. Buruan dut gertatutakoak nire bizitzan hartu zuen tarte zehatza, iraundako minutu eta segundoak, ordutik igarotako ordu kopurua. Eskuan daramat denbora, gorputzean honek daroan abiada. Zorionez kontrolagarria da denbora; manea ezina, zoritxarrez.

Txikitatik datorkit interesa, gaztetatik gaitasuna. Etxera heldu bezain pronto, logelara abiatzen nintzen lasterka, nire lagunentzat kanikak zirenaren pareko baitzen niretzako ohe azpian ezkutatutako koaderno gorria. Ordu luzeak aritzen nintzen egun hartan denborari buruz ikasitakoa idazten, aurrerago idatzitakoa irakurtzen. Aitak afaltzera deitzean, lehenago aurkitutako lekuan uzten nuen koaderno, eguneko ordu gogokoenak joanda egotearen tristezia, orri bat gehiago bete izanaren poztasunean, hurrengo eguna heltzeko itxaroan.

23.33. Soinean daramatzat arropa beltzak; buruan bete beharreko pausoak; imajinagintzan aritzen denaren legez, nik ere nire kameran daramatzat xehetasun guztiak. Heldu da ordua.

— Gaiztoa zara Ibai, jostailu hori nirea da.

— Esaten duena bera da, zeuk esan duzu eta zeu zara —esaten zidan anaiak, esaldi famatu hari erritmo gogaikarria jarriz.

Zozoak beleari ipurbeltz, kurloia zen beleari ipurbeltz deitzen ziona ordea. Azken aldi honetan, kurloia zozo bihurtu da. Hitsak koloreztatzen du zozo beltza, zozoak kurloia baitu maite.

23.54. Kordelaren korapilo berri bakoitzean burutazio bat, pertsona bat, irudi bat. Ugari dira ordea oroitzapenak, ugari pentsamenduak eta urri errukiak. Jantzi ditut azkenean gaurko egunerako gordetako bota beltzak. Edonon, edonoiz, edozer eta edonor zapaltzeko gai diren bota handiak.

Oroitzen ditut lehen aldiz jantzi nituen oinetakoak, txikiak, zuriak. Oroitzen intentzio txarrik gabeko ideiak, laguntzeko ahaleginak. Oroitzen ditut maite nituenak, joan eta itzuli ez zirenak. Oroitzen arima zital hark eginiko transmigrazioa, gorputz batetik neronenera eginiko bidea; pertsona ona izatetik gaiztoa izatera arteko pausoa.

00.01. Leihotik begira nago, leiho horretako argiak noiz itzaliko zain. Egunero legez, gaur ere ordu berean itzaliko dira argiak, ordu berean sartuko da ohean eta ordu berean hasiko da ametsetan. Errutinaren menpeko den morroi honek, ordu berean esnatu beharko dela uste du, baina errutina horretatik ateratzeko aukera izango du biharkoan, gogorragoa den beste batean sartzeko ordainetan.

Gomutan dut haren jakin mina, bazter guztietan sartzeko joera. Gomutan dut anaiaren izaera aldaketa, ume gogaikarri izatetik, gazte harroputz izatera igarotzea. Gomutan egun hartako jokabidea, momentuko sentsazioa, nik sortutako oinazea. Damu naiz.

00.24. Libre izatetik egun hartako mугen esklabotzara pasatu naiz. Kontzientzia zikintzen didan orbanaren men-

peko naiz. Nire bizitzako hormen, hutsuneen, zikinen eta damuen jabe da, jabe egin nuen anaia egun hartan.

Gogoan dut anaiaren begietan bizi zen inbidia, nire koaderno gorria eskuetan agertzen zitzaion harrotasuna, gogoan nire barruaren leherketaren arrazoia, haserrea, amorrua. Lanpara eskuan, konorte gabeko anaiaren gorputza, odola, infernua, beldurra, ihesa.

Ez dut inor ikusi ordutik. Bakarrik nago, laguntasuna dutenengandik urrun, bakarrik daudenengandik baztertuta. Lagunduta egoteko, norbere burua ezagutu behar baita, eta nik ez dut nire gorputz honetan bizi den arima ezagutu nahi.

01:00. Galdeketaren biktima naiz, denboraren jauna, zozo ipurbeltza, transmigratutako arima, bota beltz handien jabe zapaldua, errutinaren menpeko morroia eta intentzio txarrik gabeko umea faltan botatzen duen muntroa. Heldu da ordua, gizatxar izena hartzen duen arima zital honi agur esateko ordua.

## **2019ko otsailaren 23a**

Irati Uribesalgo Muñoz  
J.M. Iparragirre institutua  
Urretxu



Baionan, 2019ko otsailaren 23an

Eguerdi on:

Kaixo beste egun batez, aita. Badakit denbora asko pasatu dela azkenekoz idatzi nizunetik. Alde batetik ona da hau gertatu izana, aldiz, bestetik txarra.

Egunero, ohetik altxatu, gosaldu, hortzak garbitu, eta prestatu ondoren kalera irteten naiz ikastetxera joateko. Beste askotan kontatu dizudan bezala, Ioritz eta Oiherrekin igotzen naiz klasera. Haien zain egoten naiz bizpahiru minutu. Aldapa erdialdean geratuta gaude, bertan dagoen bankuetako batean esertzen naiz iritsi orduko, eta askotan nire pentsamenduak zuri zuzendutakoak izaten dira. Idatzi ez, duela asko ez dizut idatzi, baina zugan askotan pentsatzen dut.

Klaseen ondoren, amonaren etxean bazkaltzen dut. Sartu orduko, sarrerako armairu txiki horretan, aitona-amonen eta seme-alabetako bakoitzaren ezkontzako argazkiak dauzkate jarriak. Egunero ikusten dute zuren aurpegia

haietan, hain alai, hain irribarretsu, jada amarekin ez-kondua zinelako..

Arratsaldean, musikaren edota entrenamenduen ondoren, amarekin, Enararekin eta Aritzekin afaltzen dut. Egunean zehar eginiko gauzei buruz hitz egiten dugu. Aritz eta Enara maiz mintzatzen dira unibertsitateko kontuez, eta ama aldiz gurasoez eta ospitalean izan diren joan-etorriez. Amari galderak egiteko grina izan dut azkenaldi honetan. Nik bederatzi hilabete neramatzan haren sabelaren barruan zuk alde egin zenuenean. Ez neba eta ezta ahizpa ere ez ditut behin ere amarekin gaiari buruz hizketan ikusi, baina Enara logelan negarrez ikusi izana gogoan dut, negarrez eta zure argazkia altzoan zuela.

Aurrekoan, notak ematerakoan irakasle batek galdetu zidan ea nire gurasoek gustuko zituzten hizkuntzak, bazekien ama medikua dela, baina ez zekin zu ingeniaria zinenik. Esan nionean asko harritu zen, esan zidalako ebaluaketa-bileran irakasle gehienek hizkuntzen alorrera joan nadin gomendatzen zidatela. Gustatuko zitzaidakeen zu hemen, nirekin, egon izana galdera horri eta nire notei zuk zeuk erreparatu ahal izateko. Bi zaharrenak zientzietatik jo dute eta askok diote horiek direla argienak, baina nik ez dut hori uste. Haiek matematika eta fisika kontuetan bikainak dira, bai, hori onartu beharra dago; baina nik testuak hobeto ulertzen ditut eta ahozko azalpenak ere hobeto egiten ditut.

Hortaz, aurtengo ekainean selektibitateko proba egin eta notak ikusitakoan frantses filologia egitea aukeratuko dudala uste dut. Oso gustuko dut hizkuntza eta besteei irakastea gustatuko litzaidake. Ez dakit zer izatera iritsi nahi dudan handitan, baina zu beti gogoan izan nahi zaitudala behintzat badakit.

Larunbat arratsetan, mutilarekin kalean paseatzera joaten naizenean, zure lagunekin topatzen naiz. Zure irudia etortzen zait burura eta zaila izaten zait hura baztertzea. Urte askotan zehar ez dut ulertu izan zergatia, zergatik joan zinen? Galdetzen nion neure buruari. Baina ez zidan inortxok ere erantzuten. Zu behar zintudan galdera guzti horiei erantzun ahal izateko, baina inoiz ez zinen berriz ere etxeko tirrina joaz ageri izan. Askotan, eguneroko xelebre hau idazten hainbeste denbora jardun dudanean une horietako batean, adi-adi egoten nintzen nire galderei norik erantzungo zain, baina sekula ere ez da inor ageri izan.

Lehen, igandero ama eta laurok menditik jaisterakoan zu bisitatzera pasatzen ginen eta marrazkiak eramaten genizkizun. Orduan, ordea, ni ez nintzen ezertaz ere konturatzen. Behin amak gertatutakoa kontatu eta horrekin geratu nintzen buruan. Hamabi urte nituela errealitateaz konturatzen hasi nintzen, eta zuri bisitan joateari utzi nion. Egunerokoa hiru urte luzez idatzi izan dizut. Beti zuzentzen natzaizu zuri, behin koaderno bat hartu eta egunean zehar egindakoa kontatzen hasi nintzenetik. DBH 4. maila ikasten ari nintzen, eta gogoan dut egun horretan irakasleak bidalitako ekuazio-sistemak ez zitzaizkidala ondo ateratzen. Egoera horrek amorrarazi eta idazten hasi nintzen.

Harrezkero, haserre, triste edo amorratua nengoen bakoitzean idazten nuen egunerokoan. Lasaitu egiten ninduen, baina zugar gehiago pentsarazi eta tristatu egiten nintzen. Eta orduan irtenbide bakarra boxeatzeko zakuari kolpeka hastea eta lehertuta amaitzea zen.

Enarak behin zurekin hondartzan duen argazki bat erakutsi zidan, eta istorio bat asmatu genuen, non zuk oraindik gurekin bizitzen jarraitzen zenuen. Aritzek ez du

inoiz ere zuri buruz hitz egin, eta ez dut uste inoiz egingo duenik. Negar egitea asko kostatzen zaio eta sentimenduez hitz egitea are gehiago. Niri aldiz ez; ni oso sentibera naiz eta azkar asko sartzen zait negar egiteko gogoia. Behin edo behin, amari zuen erlazioaz eta gertatu zenaz galdetzean malkoak isurtzen zituela ikusi izan dut. Eta horrek gehiago ez galdetzera bultzatu nau.

Beñatek,, mutilak, beti esaten dit eskubidea dudala galdetzeko eta jakiteko gertatu zenaz, baina ni ez naiz hain adorea daukadan galdera mordo horiek norbaiti egiteko. Batzuetan pentsatu izan dut amonarekin edota aitonarekin hitz egitea, baina ez naiz ausartzen; gainera negarrez hasiko nintzateke ahoz gora zuri buruz hitz egiten hasten naizen bakoitzean bezala. Zuk, edozein aitaren moduan, txikia nintzenean eman zeniezadakeen maitasuna bota dut faltan. Aitona-amonak, ama, neba-arrebak, lagunak, irakasleak...bai, baneukan inguruan jende asko maitasuna emateko eta nirekin egoteko, baina zu ez, zu ez zintudan alboan eta hori beti botako dut faltan.

Batzuetan saiatu izan naiz, baina dena oso surrealista gertatzen zitzaidala konturatzen nintzen orduko uzten nion horretan pentsatzeari. Ezin dut imajinatu ere egin nola izango zatekeen nire bizitza zu nire alboan izan bazintut. Ezin diot uko egin egiari; askotan, batez ere une txarrak igaro izan ditudanean, pentsatu dut zu hemen egon izan bazina ere, nire bizia ezingo zen hobea izan, orain, perfektua da-eta.

Berriz ere idazten jarri eta esango dizudana esateko adorea izateko hainbeste tardatu izanak, lehen esan bezala, bere alde ona eta bere alde txarra dauzka.

Alde ona, niretzat da ona, eta espero dut zuk ere hala pentsatzea. “bakarrik” utziko zaitut, ez dizudala berriro idatziko erabaki dut. Badira bost hilabete idazten ez dizudala, ez dizut idatzi ez dudalako horretarako beharrik sentitu. Nire ustetan hori positiboa da. Horrek esan nahi du zu hemen ez egoteak jada ez didala hainbesteko minik ematen eta ez dudala idazteko beharra sentitzen haserretzen naizen bakoitzean. Zu hil izana eta jada onartu izanak onura asko ekartzen dizkit eta psikologikoki hobeto sentiarazten nau. Horrek ez du kenduko hilerrira joaten naizen bakoitzean zurekin gogoratu eta negar egitea.

Zergatik joan behar izan zenuen Madrilera 2004ko martxoaren 11 horretan? Ezin al zinen etxean goxo-goxo geratu? Ez dut ulertzen, aita, zergatik egin behar duen hori jendeak. Zergatik jarri behar dituzte bonbak tren baten barruan? Soilik jendea eta gobernuak beldurtzeko eta adierazteko botere nahikoa badutela nahi adina pertsona hiltzeko?

Gaztelaniaz dago, baina nire hizkuntza balitz lez sentitzen dut abesti horrek adierazten duen sentimendua. “Jueves” du izena, eta egun hartan Madrilgo Atotxako tren batean goizeko 7:39an eztanda egin zuen bonbaren erruz hil ziren pertsonen omenean idatzitako eta konposatutako abestia da. Niri asko gustatu zitzaidan entzun nuen unetik, eta orain mugikorrean ere badut.

Behin izebarekin hizketan, kontatu zidan zuri asko gustatzen zitzaizula hondartzara joatea, eta surfa egiten zenuela maiz. Aurreko udaran nik egin nuen surf ikastaroaz gogoratu nintzen. Izebarekin mintzatzean, konturatu nintzen amaik ikastaro hori nik egin nahi ez izatearen

arrazoiez. Hari ere asko kostatuko zaio zu ohearen beste aldean ez sumatzea, eta orain ni etorri eta zure pausuen atzetik joan nahi izatean gogoratu egiten zaitu eta negarrez hasten da.

Zurekin hezi izan banintz, baliteke gauza gehiago izatea komunean, baina hala ere badut zure genetika, eta badut zure gauzak egiten saiatzeko eta lortzeko grina. Horrek aurrera joaten laguntzen dit eta askotan pentsatzen dut “aitaren omenean egingo dut, aitagatik”, eta horrela pentsatzean gauzak ahalegin handirik gabe ateratzen zaizkit. Azken finean, laguntza emateko ere balio izan duzu hilda zauden arren.

Hau ez da betirako agurra, aita, hau onarpena da. Honen ez du esan nahi zugar pentsatuko ez dudarik ezta gutxiagorik ere. Baina beste era batean bizitzen lagunduko dit. Eskerrik asko guztiagatik, beste guztiek: lagunek, aitona-amonek, Enarak, Aritzek, Amak eta abarrek zurekin argazkiak daukate eta zure oroitzapenak ere etortzen zaizkie burura, nik ez, nik ez daukat gauza horiek guztiak; baina hala ere, bihotzean izan zaitut beti eta betirako iraungo du nire barruan zure oroimenak.

Azkenerako, zure abizena daramat NANean eta beste edonolako dokumentuetan. Zure alaba naiz, ezagutu izan ez bazintudan ere. Eta beti izango naiz zu hil zinen unean jaio zen neskatila euskaldun bera. Espero dut zu nitaz harro gotea, ni zutaz nagoen bezainbeste.

Aiora, ezagutu ezin izan zenuen alaba.

**36 KM**

Nagore Cuevas Trujillo  
Saturnino de la Peña Institutua  
Sestao



Yara institutuko neskarik ederrena zen. Klaseko mutil guztiak Yararekin zoratuta zeuden, edo hobe esanda, geunden. Yaraz gehien gustatzen zitzaidana bere begiak ziren. Ez ziren urdinak edo berdeak, baina begiratzen ninduenean hitz egin gabe ulertzen ninduela sentitzen nuen. Urtebete lehenago ezagutu nuen, institutuz aldatu zenean. Nahiz eta klasean elkarrekin egon, gutxitan hitz egin genuen. Behin, matematikako klase batean, Yarak ekuazioei buruz zuen zalantza bat galdetu zidan, matematiketan nahiko ondo moldatzen naizelako. Oso urduri jarri nintzen. Ni ez naiz batere lotsatia, baina berarekin hitz egitean hitzak ahots-kordetan korapilatuta geldituko zirela pentsatu nuen, eta korapiloa askatzeko tira egitean, gehiago estutuko zela, marinel-korapilo bat bezala. Zorionez ez zen hori gertatu, eta bere zalantza argitu ahal izan nuen. Beste batean, Fnac dendan aurkitu nuen.

— Aupa Mikel! Zertan zabilta hemen? Ingelesez duzun trebetasuna kontuan hartuta biharko azterketarako ikasten egon beharko zinateke!

— Ikasi, ikasi egin dut, baina ez dut azterketa gaindizterik. First conditional delakoa ez dut ulertzen. Klasean egin genituen ariketa guzti-guztiak txarto egin nituen. Beraz, argazki kamera berri baten bila etorri naiz.

— Ez nekien argazkizalea zinenik.

— Bai, txikitatik dudan hobby bat da. Horko kamera hori erosi nahi nuen, baina garestiegia da. Beste batean izango da.

— Pena handia da. Ziur nago argazki zoragarriak aterako zenituzkeela.

Espero nuen bezala, ez nuen ingeleseko azterketa hura gainditu.

Yararekin hitz egitea izugarri kostatzen zitzaidan. Edozein aitzakia erabiliko nuke elkarrizketa bat hasteko, baina ez zen hain erraza: beharbada ez zuen nirekin hitz egin nahi edo beste mutil batekin hitz egitea nahiago zuen, hitzik gabe geratu ahal nintzen, elkarrizketa aspergarria irudititu ahal zitzaion... Zinemara gonbidatzea pentsatu nuen, baina ezetz esango zuen beldur nintzen. Beraz, nahitaez baietz esateko ideia bat bururatu zitzaidan.

Bi klaseren artean, hurrengo ikasgaiaren liburuak hartzeko dugun denboraz baliatuta, nire ausardia guztia batu eta berarengana hurbildu nintzen.

— Kaixo Yara. Gauza bat galdetu nahi nizuke.

— Kaixo Mikel. Ea ba, esaidazu.

— Nirekin zinemara etorriko bazina galdetuko banizu, galdera honen erantzun berdina izango litzateke?

Mementu batez erantzuna pentsatu zuen. Ihesbiderik ez zuela ikustean barre egiten hasi zen.

— Lotsagabe halakoa! Zer ordutan da filma?

Elkarrekin amodiozko film bat ikustera joan ginen, baina ez nion filmari erreparatu ere egin, Yarari begira egon nintzen. Pelikularen protagonista, neska bat, bere klaseko mutil batez maitemintzen zen. Baina mutilak ez zionez hitz egiten, ez zuela bera gustuko pentsatzen zuen. Egun batean, mutilak zinemara gonbidatu zuen, eta munduko neskarik zoriontsuena sentitu zen. Edo behintzat hori kontatu zidan Yarak pelikula ikusi beharrean berari begira nengoela konturatzean. Egun zoragarria izan zen. Zinematik ateratzean, eskutik helduta paseo bat eman genuen. Eta orduan, gure maitasun istorio gazi-goza hasi zen.

Bederatzi hilabetez oso zoriontsu izan ginen, baina gauzak pixkanaka-pixkanaka aldatuz joan ziren. Ez nuen ulertzen zergatik munduko mutil guztien artean ni aukeratu ninduen eta bere maitasuna zalantzan jartzen nuen. Beharbada nire segurtasun ezagatik zen, Yarak beste mutil hobe batekin egotea merezi zuela pentsatzeagatik.

Yararen mugikorra kuxkuxeatzen hasi nintzen. Zenbait mutilek mezuak bidaltzen zizkieten eta horrek jeloskor jartzen ninduen. Beti non, norekin eta zer egiten ari zen jakin nahi nuen. Galdera asko egiten nizkion, eta hori dela eta hamaika aldiz eztabaidatu genuen. Orduan, mugikorraren GPS-aren bidez bere kokapena jakin ahal nuela bururatu zitzaidan eta horrela ez genuela berriro eztabaidatuko.

Ondorengo egunetan, berak ezer jakin gabe GPSa erabili nuen. Bere lagun baten etxera zihola esaten bazidan,

GPSaren bidez, benetan lagunaren etxean bazegoen ikusten nuen. Egunero bizpahiru aldiz GPSa begiraten nuen, eta azkenan ohitura bihurtu zen.

Zoritzarreko egun hartara arte. Goizean telefonoz deitua nion.

— Zer moduz Yara? Gaur eguraldi ona egiten du. Gezurra dirudi! Ez zela inoiz euria baretuko pentsatzen hasia nintzen. Zer iruditzen zaizu itsatsertzetik paseatzera joaten bagara arratsaldean?

— Sentitzen dut, baina beste batean izan beharko da. Gaur izugarritzko buruko minarekin esnatu naiz. Gripea dudala uste dut.

— Nahi baduzu zu zaintzera joan ahal naiz.

— Ez, ez! Ez zaitez etorri!

Oso erantzun arraroa iruditu zitzaidan. “Ez da ezer gertatzen, Mikel. Yara gaixorik dago eta bakarrik egotea nahiago du.”

Arratsaldeko seiretan GPSa begiratu nuen. Egia esanda, bere etxean egongo zela ziur nengoen. Yarak ez zidan inoiz gezurrik esan. Horregatik bere etxetik 36km-ra zegoela ikustean ezin nuen sinetsi. Ez nuen sinetsi nahi. Gezurra esan zidan.

Autoa hartu eta GPSa adierazten zuen lekurantz abiatu nintzen. Sutan nengoen. Beste mutil bat nire buruan irudikatzen nuen bitartean, azeleratzailea bultzatu nuen. Autoaren leihoetatik ikusten zen gauza bakarra koloreko

lerro fin batzuk ziren; kaleetako argiak. 30km, 25km, 18km. Mesfidantzak itsutu ninduen. 14km, 6km, 0km. Oihuak. Jendea nigana hurbiltzen. Hain itsututa nengoen, ez nuela semaforoaren argi gorria ikusi, ezta Yara zebra-bidea igarotzen. Hain itsututa nengoen, ez nuela ikusi Yarak besoan zintzilik eramaten zuen Fnac-eko poltsa, nik nahi nuen argazki kamera barruan zuena. Hain itsututa nengoen, ez nuela gogoratu nire urtebetetzerako hiru egun falta zirela.



# **POESIA. A maila**

Batxilergoak  
Erdi Mailako Heziketa Zikloak



# **Orro eta Ulu**

Iñigo Perez Mujika  
Beasain institutua  
Beasain



## ***ORRO ETA ULU***

Tsarrak begiratzen ez zienetan,  
kosakoak gameluz Errusian,  
iraultzaileek pentsatu  
eta herriari  
sabeleko katuak ez miaurik,  
orro eta ulu.

Kosako mozkorrak dantzan,  
Orwellen anaia handia  
ahantzi nahian.  
Errusian ez zen gamelurik.

Mende lehenago,  
katu orrolarien zerbitzura  
zen borrero

*Madame Guillotine.*

*Robespierre* gaixoari  
adarrak jarri zizkion gero,  
eta baita kendu ere,  
lepo gaineko zatiarekin.

Adreiluz adreilu  
*Marseillaise* estereoan  
deuseztatu zuten *Bastilla*.

Urdin, zuri eta gorriz.

*LORIAREN EGUNA HELDU DA*

abesten zuten;  
baina pilareak, funtsak  
kentzea ahaztu  
eta ez zen hil.  
Beste eraikin bat zen  
altxatu gainean  
eta jada oinez daki.

Orro eta ulu.  
Berandu konturatu ziren  
adreiluek jaten  
ematen ez zutenik.

Kosako mozkorrak dantzan.  
Leninek katuak  
behar zituen iraultzarako.  
Egin zuen Iraultza.  
Eta *souvenir*,  
uluka zituen gorde  
Stalinek.

Eta orro gonbitoka  
Edo ulu izerditan.  
Katu borondatezkoak gimnasioan.  
Gaur,  
iraultzari utopia  
deritzo.

Non da *Marat* eta haren  
*Askatasuna*.  
Sastatua bihotzean  
*Anaitasuna*.  
Katu odola garbi bitartean.  
*Berdintasuna?*

Non *John Lennon* ?  
Hilotza.  
Non da *Imagine?*  
Tiroa buruan.  
Otoi kosakoak gameluz  
ibiliko diren egunari.

## ASKATASUN HAIZEA

Begi-bistan dabil  
askatasun airea.  
Eta usaindu ere  
ez dugu egiten.  
Ezta ikusi,  
ezta dastatu ere.  
Eta entzuten dugunetan  
Ileko fereka soila.

Hilkutxan, beleek  
requiemak abesten dituzten  
momentuan  
oroituko gara,  
ikusi ez arren;  
dastatu ez arren;  
usaindu ez arren;  
askatasun haizea arnasten genuela  
eta horrexegatik  
gizaki ginela,  
lotuak kanpotik  
askeak barnean.

# **Hegan**

Lurdes Ondaro Mallea  
Gernika institutua  
Gernika



Zer da gehiago eguna  
uraren soinua baino, sukaldean ur-jauziak sortuz,  
bits eta burbuletan apurtzen diren arte  
aire esferak marraztuz, arnasa hutsa diren munduak.  
Birrikak ere soberan, zuritasuna soilik  
dena errez.

Erlojuaren hotsa, tik-tak  
zer da bestela gaua?  
Eurria ari du,  
zurrumurua  
belarrietan, zetazko zapi hotza azalean.  
Teilek ez diotela eutsiko dirudi,  
hotzegi dago.  
Buztina gogortzen da eta  
zurrumurua isiltzen  
gero baten batek oihu,  
natura ezin da lotu.  
Denbora eurria da eta eurria natura  
eta tik-tak.  
Tipi-tapa  
katua teilatuan.

Zer da gehiago maitasuna  
suzko bi begi baino,  
su marroi berde beltz  
urdin ubel umelak.

Garretatik edozer irtetea da zilegi,  
gizakia ere berotik sortu zen  
eta berora doa.

Ingurua isilik dagoenean, belarria begien parera hurbilduz  
gero,  
oroitzapenak eta egunkari orriak nola erretzen diren en-  
tzungo duzu,  
txinpartak gorantz, inguruko airea ke bihurtuz.

Kaosa.

Eta ume irribarretsu baten itzala  
suaren argitasunean.

Zer da etxea  
bi eskuren epela ez bada,  
mapa bat marrazteko eskuak,  
zuhaitzen azalean edo nirean  
ametsezko bideak.

Zer da gehiago edertasuna  
urezko esfera baino?  
Zazpi itsasoak barnean ditu  
eta arrainekin jostatzen gara.  
Neskatilaren irribarre zurbila  
iluntzeko argitasun gorrian,  
gaua heltzean zurbilago.

Zer da gehiago bakardadea  
zure malko gaziak baino?  
Pasabide hutsa  
fluoreszentez argitua.  
Gailu elektronikoen zabortegia,  
noizbait perfekzioaren ikur izan zirenak  
arrakalarik gabeko gainazalak negarrez ari dira,  
behazuna darie.

Zer da nahi eta ezina  
lurra ukitzera heltzen ez den errezelarena ez bada,  
bere buztanari haginka egin nahi dion katuarena:  
ahoa ilez beteko litzaioke eta arnasa ezak itoko luke,  
eboluzioak ekidindako asfixia arazoak.  
Ilargian etxe bat egin nahi  
eta harainoko eskailera egiten ari den arotzarena.

Zer da izatea  
marra beltz bat orri zurian ez bada,  
marrazkiak diruditen letrak,  
izarrak zero beltzean.  
Tinta korritzen da eta desagertu  
eta izarrak lehertu egiten dira,  
ez dutelako beste zereginik  
geldi egon eta bueltak ematea baino.

Zer da ez izatea  
itsasoko ortzi-muga ez bada,  
eguzkiak ura besarkatzen duenekoa:  
astroek ez dute besorik  
eta lehertu egiten dira.  
tximeleta bihurtzen ari da krisalida,  
bihar oihal ustel bat baino ez da geratuko.

Zer da bizitza  
eguzkiak argitutako tximeleta ez bada,  
hegan.

## **Requiescat in pace**

Irati Ricon Santoyo  
Beasain institutua  
Beasain



## *I*

Iluntasuna leihoaren bestaldean

*Bihotza izotzak inguratzen*

Izarren argia itzalita

Bihotza iluntasunak estutzen

Katu bakarti baten aieneak

Bihotza kexuek zauritzen

Auto baten urruneko intziriak

Bihotza balaztek gelditzen

Bolaluma nire eskuetan urduri

Bihotza beste mundura bidaiatzen

## *II*

Atea irekita

Bihotza susmoek astintzen

Argia piztuta

Bihotza ikarak erasotzen

Irratia musika abesten

Bihotza doinuek izutzen

Kopa erdi ardo argiak berotzen

Bihotza malko gorriek bustitzen

Sofa hutsa

Bihotza beldurrak betetzen

Egongelatik ihesi

Bihotza adrenalinak bizkortzen

Pausoak handik aldentzen

Bihotza giharretara bere arima isurtzen

Sukaldera hurbildu

Bihotza berotzea desiratzen

Zopa mikrouhin labean hozten

Bihotza gosea galtzen

Ironia galanta

Bihotza samintasunez negar egiten

Logelara korrika

Bihotza betiko lo egitea desiratzen

Gorputz bero bat aurkitu nahi

Bihotza lasaitzea irrikatzen

Izaren artekoa arakatu

Bihotza arnas bizia bilatzen

Ezereza aurkitu

Bihotza etsipenean hiltzen

Negar egin nahia

Bihotza malkotan itotzen

Komunean giltzaperatu

Bihotza oihu egiten

Aurpegia urarekin freskatu

Bihotza dagoeneko etsitzen

Malkoak eta ura nahastu

Bihotza zurrunbiloa askatzen

txorrota ezin da eten

Bihotza berarekin batera husten

txorrota malkoak isurtzen

Bihotza nahigabetzen

Azkeneko geldialdia

Bihotza bukaera nabaritzen

Idazten duen gela

Bihotza pixkanaka hurbiltzen

Atea irekita

Bihotza etsipenean itotzen

Bolaluma bat lurrean

Bihotza zorutik agurtzen

Gorputz bat aulkian botata

Bihotza indarge itzaltzen

Burua idazmahaiaren gainean  
    Bihotza bularraldean  
Eskua bolalumarengana luzatuta  
    Bihotza hutsik  
Ezpainak moreak  
    Bihotza hotz  
Azala zuri  
    Bihotza geldirik  
Arnas izoztua  
    Bihotza itzalita  
Orria burupean  
    Bihotza zuri  
Tinta arrastoak aurpegian  
    Bihotza sorleku  
Hiru hitz burko moduan  
    Bihotza haietan  
Arimaren azken mezua  
    Bihotza isilik  
*Requiescat in pace*  
    Bihotza hilik

### *III*

Etxe osotik jarraitu

Hildako baten presentzia

Bere pausoen atzetik

Hildako baten jazarpena

Bere ilea usaintzen

Hildako baten arnasa lepoan

Bere bizia sentitzen

Hildako baten gabezia

Bere musuak desiratzen

Hildako baten maitasuna

Bere malkoak ikusi ditut

Hildako baten bihozmina

Bere esku dardartiak

Hildako baten atsekabea

Bere ezpainen dantza etsia

Hildako baten oinazea

Bere begiak harrituta

Hildako baten fereka azalean sentitzean

Bere bihotza bete duen barealdia

Hildako baten azken desira



## **Zikloa**

Imanol Duran Gabilondo  
Urretxu-Zumarraga ikastola  
Urretxu



Eskua zabalik du,  
sorbaldan bi zaplada eman dizkit  
eta badoa gela berotik,  
beste egitekorik ere badu.

Momentura arte dudan lasaitasuna  
kidetasunaren magala, badoa.  
Bakardadea orain.  
Altzoa iluntzen doa,  
arrats gorri baten alde ezkututik ihes  
egiten duten isla hotzak badatoz nigana.  
Zergatik?  
Iritsi dira jada.

Nire oinak eusten dituzten lauzak ihes doaz. Hankak dar-  
darka ditut.  
Isla ilunek ingurua bendatu dute;  
Esku hark emandako goxotasunaren  
eta berotasunaren arrastorik ez da.  
Zergatik?  
Berandu da orain.

Inguruan bada esku gehiago,  
ezin dizkiet begiak ikusi ordea.  
Isla zorrotzek ebaki dituzte.  
Irekiko dira, itxiko dira, itxiko  
Zergatik?  
Ez dakit atera ahalko naizen.

Bizi-larritasuna eta damua, erruduntasunaren adierazle da  
niaren osatzaile. Arazeri eta zereginak alde batera utzi eta  
eskua emateari utzi. Hori da ene erregua.

...

Bornua ez da iluna orain.  
Ez du kolorerik, momentura arte itotzen nauen pigmentu  
soziala garbitu balitz bezala.  
Eskuak zabalik daude, irribarre egiten didate. Zergatik?  
Ilusiora bueltatzeko irrikan daude.  
Ni ez.

Intrigak bildu nau, nahikeriaren  
eta berekoikeriaren linboak, dardarka nituen hanka orain  
higiezinak ez mugitzeko agindu mentala. Duda mudak bil-  
duta. Zergatik?  
Ez al nago egoera hobean?

Bakardadearen estigmak, tabuak, klixeak eraman nau.  
Ingurukoen presentzien banalitateak ez nau erakartzen  
jada. Eskuek atentzioa galdu dute, erritmo falta haien mu-  
gimenduetan.

Zergatik?

Jendea hutsik dago, beraien hitzak bezain beste.

Nire isiltasunak eskaini diezadakedan solasaldia,  
gogoetak ahalbidetzen didan askatasuna,  
influentziarik gabeko ikuspuntuak,  
nahiko dira mundu hau den desmasiaren kontra aritzeko.

...

Erabaki librea mugatzen zidan giza oihanetik irten naiz.  
Elkarrizketa eta tratu huts eta zentzugabeek ez dute nire  
adimena gehiago kutsatzen.

Labirintu barneko itzalak espetxeratuta daude landaretzan;  
ni, ordea, naretasunaren irudi den zelai berdean:

Aske naiz. Zergatik?

Jendeak jar diezazkidakeen etiketek bost axola.

Ez naiz sekula hain bizirik, sentikor, hain NI izan. Ni eta  
nire pentsamenduak...

Ni eta nire gogoetak...

Ni eta...

Eskua zabalik du,  
sorbalan bi zaplada eman dizkit  
eta banator berriz, gizarte zirkulura, kaosaren oihanera.  
Benetako bakardadera.  
Zergatik ?!

# **Buruhauste onuragarriak**

Alain Mendizabal Diaz  
Koldo Mitxelena Institutua  
Errenteria



## I

Zerua behera datorrela dirudi.  
Euri-jasa honek oroimena freskatzen dit,  
nire gelan neu bakarrik.

Kalea hutsik.  
Zu eta biok eskua emanda nahi nuke bizi,  
zoritxarrik handienari izkin.  
Nahi eta ezin.  
Besarkada batekin soilik  
betiko duda-mudak desagertarazi.

Esperantzak txikitu ordu txikitako gogoetetan,  
aldamenean nuela uste nuenak alde egin zidan  
eta ez da bueltatu, ez eta bueltatuko,  
ahala egingo balu, jasoko zuen nire ezezko.

Amets gaizto amaigabe dirudien bizi honek ere  
baditu ataraxia tarreak.  
Nik bizi nahi izango nituzke,  
baina gogor tiratzen dit artaldeak,  
denek egiten dutena egiteak.

Banatze hori ez da ez egun batetik besterako lana,  
besteek diotena albo batera uztea.  
Lortzen duenak ausarta,  
nahiz eta ez jardun ohoreki, izanda ustela,  
lortuko du helmugara heltzea. Nolako merezimendu eza.

Ez dut ezer adierazi nahi honekin,  
sentiaraztera bultzatu baizik.  
Goizero gurutzatzen duzun kale horretako zuhaitza  
besoen artean bildu, zer esaten dik?

## II

Bizitzari zentzua bilatzen dihardu jendeak.  
Bizitza osoa horretan galduz,  
besterik gozatu gabe,  
nolako atsekabea.  
Hobe norberak bere bideari ekitea  
eta utz dezala bakean patuaren egitea.

Gure iritziak ezin kanporatu ditzakegula dirudi,  
besteen aurrean garena ezkutatuz, lotsati.  
Ero moduan hartuko genuke norbaitek egingo balu,  
baina ero hori gutako zoriontsuena seguru.

Hosto gabeko udaberrira eraldatzen ari gara geure arima,  
kuriostate gabeko sortu berri den haur baten antzera.  
Inozokeria galdu dugula esatea asko da,  
inozoki jakitunak garela uste izatea ez, bada.

Nola begirada batekin esan daiteken dena,  
ezin den esan hitz korapilatsu mordo batekin.  
Nola ulertu gaitezke bi lagun hitz batzuekin soilik  
eta ez eta begirada esanguratsuenarekin.

Buruko nahasteak dira, egunerokotasuneko kezak. Gutxiak  
kanporatu arren,  
denok barruan daramatzagunak.

### III

Berriz nator zugana,  
nire hasperen eta zoritxarrak uxatzera.  
Aurrera begira,  
hostoz gainezka den basamortuko zuhaitza dakusadala  
nire logelako horma hutsean,  
nire ametsak ideiatzeko dudan arbelean.  
Edozer gauza irudika nezake bertan,  
nire pentsaera hala baita;  
arranoak mendia norantza gabe zeharkatzen duenean be-  
zala. Askea.

Inoiz nire izatean zerbait faltako banu  
egunero neure buruaz harritzea, seguru.  
Jeloskor naiz hori besteren batek sentitzen duela entzutean,  
baina nire jeloskeria amaitzean bihurtzen naiz miresdun.

Lanbro artean ezkututzen diren begiradak,  
faltan nituenak,  
azaldu dira bart.  
Ez dakit zer nahi duten,  
ez dakit zer nahi dudan.  
Jakitean akaso bukatuko dira nire dudak.  
Hala ez, jakinduriak beste galdera asko dakartza eta.  
Ase ezin daiteken iturri onuragarria.

Pentsa, geldi zaitez une batez.  
Begira, zure inguruan urteak nola doazen.  
Haurrak kalean jolasten,  
zu halakoa zinen lehen,  
lehenaldian geratutako bizi-tarte.

Atzera begira,  
saihesten saiatzen naiz baina saiakera ezina.  
Igarotako momentu txarretako sumina,  
uda gogor baten ondoren beti datorrela iraila.  
Egindakoa zergatik dagoen egina  
galderaren erantzuna buruan nuen garaia.  
Gure bizipenetatik barruan geratu zaigun zauria. Nostalgia



# **POESIA. B maila**

DBHko 3. eta 4. kurtsoak



# **Maite nau**

Olatz Martiartu Ayestaran  
Lekeitio institutua  
Lekeitio



Gona berdea soinean  
zuri koloreko blusari  
irmo  
urrezko kizkurren artean  
distira arrosak alde banatan  
ezkutaturik ia,  
azken eder ukituez arduratzen  
nekusan ene irudi gaztea  
ispiluan  
nekusan ene irudi gaztea  
azken eder ukituez arduratzen  
galdurik ia,  
distira arrosak alde banatan  
urrezko kizkurren artean  
irmo  
zuri kolore biziko blusari  
gona berdea soinean.

Hasi zen kantari txirrina,  
begi berdeak agerian  
egin nion ongietorria.

Itzaltzat

bere gustuko udaberri-lurrina,  
isilarazteko era bakartzat  
muxu luze beroa,  
film erotikoetako bilbean lez  
logela helburu  
erdietsia.

Tentsio-giroa laket zitzaidan  
gustuko nuen hitz jasa,  
ulergaitz bere intentzioak  
urrunegi galduak  
nigan inoiz agertuak apenas.

Irrati-kaseteari zerion melodiaren,  
letra hunkigarri haren,  
lasai mantentzen gintuen doinuaren,  
bata bestearen  
menpeko txoro pareak ginen.

Bideratu ginen esploratzerantz  
lehen zitzaiguna ezezagun  
aurretik bidea bagenekien labirintotik  
atereaz

irtenbidea nekez aurkitzeko  
berri batean galduz.

Bideratu ginen esploratzerantz  
lehen zitzaiguna ezezagun  
bizitako tentsio apaletatik  
urrunduz  
ezagungabe bortitzagoen  
bila abiatuz.

Ezin saihestu hotzikara  
botoi-zuloak husten ziren heinean,  
hatz leunen kilika,  
irribarrea marraztu beharra.  
“Ez zaitut maite”.

Ezin saihestu hotzikara  
bularretakoa askatzen zidala,  
xuxurlaren kilika,  
desiratuz betiko haize bolada famatua.  
“Maite zaitut”.

Ezin saihestu hotzikara  
gona alaia izterretan irristatzean,  
esku hotzen kilika,  
gehiago estutu beharra.

“Ez zaitut maite”.

Ezin saihestu hotzikara  
gomutatzean amak biluzten ninduen garaia  
laztan frankoren kilika,  
kuleroen aireratzea.  
“Maite zaitut”.

Ilargia garaitua izan arte  
sorpresen kutzaz unatzea zer zenik ezean,  
izarpean gerta litekeen guzitik.

Behin ezinezkoa zirudien segida,

ametsak ameste

ameste izarak

izarak heltze

heltze ordua

ordua heltze

heltze izarak

izarak ameste

ameste ametsak hura,

errealitateranzko trenera igoz,

abiarazteko “puuu...” ahantzitik urrun

makinen isilaraztean ainguratu.

Eta haren etxera itzultzea.

Botila kolpetik edanaren pareko pozaldian  
guzia memoriatik ezabatzeke asmorik gabe baina,  
arropen arrastorik ez nuen jada  
erruki gabe haizeak aspaldi hegaraziz.  
Azken petaloari,  
petaloa kentzeari  
zegozkion bi berben  
“maite nau”  
oihartzuna entzunez  
lorategian biluzik geratu zen  
hostoz hosto erantziriko bitxilorea naiz.



# **Gaubelarena**

Oihane Lopez Lasa  
La Salle-San Jose  
Beasain



1. Itsasoari so, une batez  
ortzi-muga  
argitan, herria  
biziaren batura  
ilunabarra  
distiraren apala  
beltzaren garaia  
gaua

2. Gauari so, une batez  
printzen itzaltzea  
zertzeladen keinu  
zerua begira  
zerura begira  
iluntzearen ederra  
loaren aldia  
ametsak

3. Ametsei so, une batez  
errealitatearen jausialdia  
begiak itxi zabalik  
ortzi-muga  
beltzaren apala  
distiraren garaia  
gauaren xarma  
loaren aldia  
ilunabarraren gakoa

4. Ametsei so, une batez  
errealitateari adio  
delirioan murgildurik  
desioan deslai  
desio margula, desio geza...  
desioa aitzitik...  
desioa eta delirioa,  
maitasuna eta oinazea  
plazera... instant betierekoa.

5. Gauari so, une batez  
bakardadearen bihotzean  
bekatuaren garretan... alaiki  
jainkosen ezpain...  
Mariren sabel...  
laminen adats...  
ni neu... jolasean  
ni neu... ametsetan

6. Itsasoari so, une batez  
ametsen irrikaz  
gauarekin bat...  
desioz, oinazez... maitasunez  
istant batez...



# **Oroitzapenak**

Maddi Puy Sorondo  
Hurtzaro ikastola  
Oiartzun



Gogoratzen da,  
gogoratzen da,  
duela urte asko  
koloretako orri batean  
egin zuen marrazkiaz,  
bere amak sukaldeko atean jarri zuen,  
familiako guztiek goraipatzen zuten.  
Ama harro zegoen berarekin.  
Urte hartan bere anaia jaio zen,  
ilerik gabeko eta esku txikiko haurtxoa.

Gogoratzen da,  
gogoratzen da,  
handik urte batzuetara  
koadro urdineko orri zuri batean  
egin zuen idazlanaz,  
bere amak ez zuen sukaldeko atean jarri  
margotu berria zegoelako.  
Amak ez zion kasurik egiten.  
Urte hartan bere anaia goraipatu zuten denek,  
ile hori eta begi urdineko aingerutxoa.

Gogoratzen da,  
gogoratzen da,  
beste urte batean  
orri zuri batean  
idatzi zuen poemaz,  
bere amak ez zuen sukaldeko atean jarri  
berak ez baitzion inoiz erakutsi.  
Amak ez zuen aitaz ezer entzun nahi.  
Urte horretan bere anaia neska batekin harrapatu zuen,  
hamasei urteko gazte ederra.

Gogoratzen da,  
gogoratzen da,  
lehengo urtean,  
unibertsitatea bukatu ondoren  
ordenagailuan  
idatzi zuen ipuinaz,  
aitari erakutsi nahi izan zion  
baina hark ez zion kasurik egin.  
Urte hartan bere anaia etxetik joan zen,  
hemeretzi urteko gazte errebeldea.

Gogoratzen da,  
gogoratzen da,  
atzo,  
bere koadernotik erauzi zuen orri hautsian  
amari idatzi zion gutunaz,  
amak agian sukaldean jarriko du,  
duela urte asko marrazkia jarri zuen moduan,  
eta alaba gogoratuz negar egingo du.  
Aurten bere anaia ama pozten saiatuko da,  
hogei urteko mutil arduratsua.

Eta orain,  
orain,  
idazten ari da,  
poltsatik atera duen musuzapian  
bizitzan lagundu duten guztiak agurtzen,  
eta duela urte asko amak egin moduan  
sukaldeko atean jarri nahi du,  
baina eskumuturretik galdutako odolak ahuldu egin du.  
Sukaldeko atearen alboan erori da.  
Begiak itxi ditu.  
Jada ez da gogoratzen.



# **Bizitzaren jokoa**

Alaitz Estonba Loinaz  
J.M. Iparragirre institutua  
Urretxu



Zer egin bizitzak tratu bat egin nahi duenean?

Aurrez jo ala atzera buelta eman?

Zer egin maitasunaren aurrean?

Maitatzeari utzi ala amore eman?

Izutu beharrean, zergatik ez barre egin?

Zer egin ezerk balio ez duela konturatzean?

Negarra begietatik ihesi doanean?

Ez dakit noiz arte jarraituko duen honek,

agian bihar bertan amaituko da jokoa,

edo agian oraindik tranpa gehiago ditugu sahiesteke.

Nork daki?

Bitartean, irribarre egitea izango da onena,

arazoei guda deklaratzeari,

maitasunaren aurrean amore emateari,

laguntasuna barru-barruan gordetzeari,

lagunen irribarreak zugandik hurbil mantentzeari,

askatasunaren hegoak askatzeari,

mundurik ilunenean ere amets egiteari,

bizitzari nor zaren argi uzteari,

zure desioengatik borrokatzeari,

maite duzuna zaintzeari.

Erotzen bagara zer?  
Gu iraintzen utziko al diogu bizitzari?  
Gutaz barre egiten akaso?  
Zergatik ez burua altxa?  
Zergatik ez malkoak irribarrean ezkutatu?  
Zergatik ez aske sentitu?

Agian hegoak moztuko dizkigute,  
edo mokoak itxi,  
edo kaiola batean utzi.  
Agian larre guztiak kenduko dizkigute,  
edo zuhaitz guztiak moztu,  
edo ur guztia lehortu.  
Agian ozeanoetako ur guztia xurgatuko digute,  
edo kristal atzean gorde,  
edo hegatsak kendu.

Azken finean denok gaude hemen,  
denok dugu zereginen bat,  
baina inork ez daki zer egin.  
Hortan datza:  
denok gara ezjakinak,  
denok gabiltza galduta,  
norbaitek bada, ordea, jokoaren gidari,  
zaindari edo ehiztari.

Futbolineko jokalaria gara,  
funtzio bateko txontxongiloak,  
umeen jostailuak,  
baloï puskatuak,  
lotuta doazen animaliak,  
morroi xumeak,  
askatasuna behin eta berriz kentzen diguten munduan.

Joko bat gara  
inork aukeratu ez duen mundu honetan,  
amets egitea galarazi nahi digun munduan,  
gutziz ulergaitza den jokoan.  
Ez dut atzera begiratu nahi,  
malkorik isuri nahi.  
Ez dut samina ukatu nahi,  
